

uk

193. zenbakia / 2011ko apirilaren 11a



ETORRI BISITA GIDATUETARA!



APIRILAREN 30ean, GOIZEKO 9:00etan FADURAKO KIROLDEGIAREN ATEAN

Getxo
bizi ezazu

 Getxo UDALAK - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	
 Leiza UDALAK - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 YBALE UDALAK - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua
 Erandioko Udalak UDALAK - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 Sopelana Udalak UDALAK - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua
 Gernika Udalak UDALAK - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 Urduliz Udalak UDALAK - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua
 Plentziako Udalak UDALAK - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du
TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTZATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111	
 BFA DFB Birkalko Foru Alkandua Diputazioan Foral de Bizkalia Kultura Saila Departamento de Cultura	

www.ukaldizkaria.biz



11 Iratxe Marta

54 Yagurinha Borova

54 Yoqurinha Borova



Leloia
RENTACAR
ibilagailu-alokairua



Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Leihatila
> Pedro García Larragan

Kutxak

Hiru euskal kutxak 'bateratze hotza' prozesua martxan ipintzea erabaki dute. Horrek esan nahi du euren dirua saku berean sartuko dutela, baina obra soziala delakoak, bakoitzaren menpean izaten jarraituko duela. Gainera, kutxa bakoitzak bere izena, bulegoak eta egitura mantenduko ditu. Zein da, orduan, aldaketa? Bada, hiru kutxetako 'diruaren' estrategia orokorra (non inbertitu, zer baldintzatan, zein interesetako maileguak emon, e.a., 'banku' berri horren eskuetan egongo dela. Eta gakoa da, 'banku' berri horren boterea zelán banatu eta zeinek aginduko duen gehien, erabakitzea. BBK-k diru gehiago ipiniko du hiruren 'sakuan', hau da, 'banku' berri horretan. Erdia baino gehiago. Logikoa izango litzateke erabakitze orduan botere handiagoa edukitzea. Baina gure herria ez da batere logikoa. Hika-mikan arituko dira (gara) zalantzarik gabe Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako ustezko interesen artean. Horrela ez dago aurreraterik. Forgesek esaten zuen bezala, hasperen handi batekin: 'pais'.

gu geu

Jai, jai, jai sofa erosoan!

Ez lagunak, ez gara sofa erosoan lotuko Aste Santuan, nahiz eta oporralditxoa hartuko dugun UK-kook. Zelán alaitzen dituen behar egunak, oporraldiak eta planak hurbil izateak! Horiek aurrera eroan ahal izateko 56 orrialdeko gure umetxoari ohi baino baimen handiagoa emango diogu kalean egoteko, hurrengo zenbakia ez baituzu maiatza hasiera arte jasoko. Bitartean baduzu zer irakurri eta non ikasi. Fredi Paiak adibidez, proposamen bat egin dizu, zure parte hartzea eskatuz. Ea gustuko duzun! Bestalde, zinea gustuko duzuenok, Helena Tabernaren elkarriketagaz gozatu ahal izango duzue. Zabala Eskolakoek 100 urteko historia irudietan islatzeko egiten ari diren bildumaren aurrerapentxoá utzi digute. Algotarko merkatuan arriskutsua baina gozoa den marrazoa aurkitu zuen Mikel Martinezek... Horregaz nahikoa izango duzula uste dugu, batez ere, maiatza bitartean dituzun hitzordu mordoa kontuan hartuta. Apirilaren 16an Korrika helduko da eskualdera; egun berean Txorimaloko gazteek 5 urtetxo beteko dituztela ospatuko dute; maiatzaren 1ean Euskal Herriko Dantzari Eguna egingo dute Erandion; Leioako Pinueta auzoan nekazaritza azoka egingo dute apirilaren 17an... oporraldian Uribe Kostatik kanpora joateko aukerarik ez baduzu, lasai egon; zer hobeto Costa Rican lotzea baino?

UK-ko lantaldea

Iritzia

Ion Etxegarai gazte sopoloztarraren lagunak gutuna helarazi ziguten martxoan erredakziora. Hona hemen.

Ongi etorri, Iontxu

Oraindik oso presente dugu ikustezin bihurtu zinen egun hura. Gure artean harridurazko sentsazioa nagusitu zen beste sentipen askoren artean. Egoera

«Zuk, Ion, ez duzu botere bakarra; botere asko baizik. Zure arbaso, familia eta gertukoengandik jaso duzunak egiten zaitu boteretsu»

horiei guztiei erantzuna jarri, eta gure barrena astintzen zuen zurrunbiloa gelditu. Jendearen zalantzek eta galderek urduritasun hori areagotzen zuten.

ulergaitza egiten zitzaigun. Zergatik zu? Zer nahi dute zugandik? Zelán zaude? Noiz eta non ikusiko zaitugu berriz?

Ezin genien buruan genituen galdera

Itxaronaldi luzeak herri honetan bizi dugun errealtatea gertutik sentitzeko aukera eman zigun eta berriz ikusgai egin zinenean eta txakurrek gure artetik urrunduzintuztenean, batzuentzat zu izan zinen bezain ikustezina den errealtate horren kontra jo genuen bete-betean.

Orduan, hasieran izan genituen sentipenak desagertu ziren eta beste batzuk azaleratu: amorrua, elkartasuna, ardura, mendekua... Baina horma horren kontra jaso genuen kolpeak zalantza horiek guztiak argitzen lagundu zigun, eta herri honen etsaiek zu gugandik banandu nahi izateko arrazoiak ulertzen:

Zuk, Ion, ez duzu botere bakarra; botere asko baizik. Zure arbaso, familia eta gertukoengandik jaso duzunak egiten zaitu boteretsu. Bizitza honetan irakatsi dizutena eta zuk zeuk ikasi duzuna bihurtzen duzu arma. Arma horiekin egiten duzu aurrera, kementsu, arduratsu, bide zuzena hartu duen pertsonaren konbikzioz, aurrean duzunari beldur izan gabe eta zurekin doazen guztiei bidea erraztuz. Horregatik gugandik banandu nahi izan zaituzte eta beste guztiak gezur zikinak baino ez dira!

Baina orain hemen zaude eta badakite eurenak eta bi jaso beharko dituztela berriz ere gugandik urrundu nahi bazaituzte. Ez dute nahi zutena lortu eta ez dute inoiz lortuko. Hemen zaude, presente, eta horrela izango da beti.

Horregatik, Iontxu, gaur arrazoiak ditugu esateko zu hemen egonda garaipena gertuago dugula!

Eskerrik asko, Iontxu.

Ion Etxegarairen lagunak
(Sopelana)

[irudia]



AKERPIA INSTITUTUA, 2011KO MARTXOA

Euskaraz... eta merkeago!/? Gida-baimena euskaraz atera gura duzu? Aurten inoiz baino erraztasun gehiago izango dituzu horretarako. Izan ere, Gexoko Udalak eta beste hainbat erakundek II “Gida-baimena euskaraz” kanpaina sustatu dute, eta horren bidez, dirulaguntzak eskainiko zaizkie gida-baimena euskaraz ateratzen duten gazteei: teorikoa euskaraz egiten duten 150 euroko laguntza jasoko dute, eta praktikoaren kasuan, lehenengo eskola musurruk. Apirila hasieran, Andres Vilariño rallye pilotua gidatze-simuladoreakaz ibili zen Gexoko ikastetxeetan. Emon abiadura euskarari! o / Argazkia: Asier Mentxaka



Kopiak **SALGAI** bulego barrian

Martikoena 16, 2. solairua

Algorta (Getxo)

Alangoko Osasun Zentroaren alboan

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



Iraganez doa denbora* beti / URKO, LARRABASTERRA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > ahateak Berangon



2011ko martxoa, Berango

Testua: **Arkaitz Gomez** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Aizak hi mutil mainontzi

Andre batek poltsak daroz,
béstek be in deu eros,
asfaltu hotzan txuri baltzean
serio-serio datoz.
Ikusiarren nozonoz
hiru páto bere dao
lami oinekaz pausu arinez
ibiltteko asmoz.

Ez da batere erreza,
emon kumeri babesa,
illedan para pausun yonda ta
on lepo arteza.
Geldi oteko gure eza,
patok ete deure presa?
eurek jakingo al deure zer dan
uriko estresa?

Krisi bet da áupako,
ez gozak/n gosek tragako!
hara hor hiru txitxi burrúntzi
kanpomartxorako,
ostantzen lapikorako
"à l'orange" afaltako.
Errukibákok jateko páto
ez da iñoz faltako.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarria

- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.



Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

euskara > zatoz gugaz Korrika!



info+: www.korrika.org

ekimena > Guernica Gernikara ekartzeko sinadurak biltzen



info+: www.guernicagernikara.net

Euskararen aldeko lasterketa lotu barik dabil Euskal Herrian, gora eta behera. Korrikak Uribe Kosta ere bisitatuko du zapatuan, apirilaren 16an, amaitu baino egun bat lehenago. Goizeko 08:50ean helduko da Erandiora eta 14:15 aldera utziko du Lemoiz. Dena prest dago lasterketa handiari ondo etorria esateko, ekimenak eta jaialdiak antolatu dituzte herriz herri. Baina biharamuna egun handia izango da, beraz, indarrak bildu! Donostian amaituko da Korrika eta egun osoko jaialdia prestatu dute. Ekitaldi nagusia egingo dute 12:30ean, Bulebarrean. Handik aurrera eta bost gunetan ez dira faltako musika, dantza eta jolasak. Denetarik egongo da: triki-txotx, xiba jokoak, tailerrak, txahal errea, joaldunak, erromeriak e.a. Kontzertuak Trinitate plazan izango dira eta 15:30etik aurrera joko dute Gose, 10 izate, Esne Beltza eta Ze esatek! taldeek. Ondoren, Kafe Antzokian jarraituko du jaiak. o

Datorren apirilaren 26an beteko dira 74 urte faxistek Gernika bonbardatu zutenetik. Pablo Ruiz Picasso Malagako margolariak irudikatu zuen pasarte lazarri hura *Guernica* margolanean. Munduan zehar oso ezaguna da koadroa, eta Gernikako Udaletik diotenez, “*Bakea eta Giza Eskubideen ikur bezala ezaguna da*”, eta hainbat museotan egon da ikusgai: Parisen, New Yorkeko Arte Moderno museoan edota Madrilgo Pradon. Baina margolana Madrilen dago gaur egun, Reina Sofia museoan. Gernikarrak koadroa herrian behar duela iritzi diote eta aspaldi horretan saiatzen ari dira. Horregatik kanpaina abiatu du Gernikako Udalak eta internet bidez sinadurak biltzen ari da, www.guernicagernikara.net gunean. Milaka sinadura daukate, baina askoz gehiagoren premia dute. o

saiazgetaria

HOTELA



Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria



...lehenago garaiak...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

barrika > zabaletxeko historiaurreko aurkikuntzak interneten



www.barrikarqueologia.net

Duela 280.000 urteko Neanderthal gizakien aztarnak daude Barrikako Zabaletxe inguruan, Meñakozetik hur, eta Udalak bertan topatutakoaren barri zabaldu gura du interneten. Horretarako webgunea abiatu du: *www.barrikarqueologia.net*. Helburua da lehen gizakien artean Barrikak izandako garrantzia aitortzea herriari. Era berean, ondareari buruz herritarrek kontzientzia har dezaten gura dute Udaleko arduradunek. Baina webgunea hasiera baino ez da. Etorkizunean Kresalia itsasertzeko parkeko interpretazio zentroa egiteko asmoa daukate, eskualdeko arkeologiaren eta paisaiaren balioa sustatzeko, eta turismoa erakartzeko. Barrika gizakien biziraupenerako gako izan zen, bertan dagoen silexagatik: material oso gogorra da tresnak egiteko eta ehunka kilometrora aurkitu izan dituzte Barrikako silexagaz egindakoak. Hainbat ustiaketa egin dute Zabaletxeko aztarnategian, iaz izan zen azkena. ○

arrantza > saregileen lehen eskola zabalduko dute Getarian



Euskal Herrian 64 emakume dabil saregile

Saregile ofizioa irakatsiko dute laster Getarian, Saregileen lehen eskolan, izan ere, arrantza egon bitartean saregileen lana beharrezkoa izango da. Saregileek lan egiteko pabilioi barria inauguratu dute eta bertan kokatuko da eskola. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saileko arduradunen arabera, lan egiteko leku aproposa izango dute saregileek. Euren lanari profesionaltasuna aitortzeko bidean urratsa ere egin gura omen du horrela. Hego Euskal Herrian 64 emakume dabil saregile, baina adinaren batez bestekoa 50 urte da. Beraz, pertsona gazteak erakarri gura dituzte, baina ofizioa ikasi behar dute. Orion ere saregileek erabiltzeko beste eraikin bat zabaldu barri dute eta antzeko lokalak prestatu gura dituzte Bermeon eta Ondarrun. ○



“Denoi dagokigu urte osoan zehar euskara aldarrikatzeko lekukoa hartzea”

Iratxe Marta > Uribe Kostako AEK-ko arduraduna

Dagoeneko luzaketak egiten ibiliko zara Korrikan ttipi-ttapa aritzeko, ezta? AEKn aspaldi hasi ziren Korrika prestatzen. Iratxe Marta Uribe Kostako AEK-ko arduradunak aitortu duen legez, Korrika prestatzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula: *“Apirilaren 17an Korrika Donostian amaituko da, eta ekainean Korrika 18 prestatzen hasiko gara”*. Aurtengo Korrikaren protagonistak “euskalakariak” dira, hots, euskaraz ari, bizi eta maitatzen dutenak: *“Igor Elortzak asmatu duen berba da. Bere garaian AEK-k ‘euskaltegi’ berba asmatu zuen eta egun modu naturalean erabiltzen dugu. Euskalakariakaz horrelako zerbait egin gura dugu”*. Euskalakariak ez ezik, Euskaltzaindia ere omendu gura izan du AEK-k: *“Bada garaia. Askotan ikasle zein irakasleok kexaka ibiltzen garen arren, normalkuntzarako egin duen lanak garrantzi handia du. Lan ‘zikina’ egin behar izan du”*. Era berean, Korrikaren funtsa gogoratu gura izan du Leioan bizi den derioztarrak: *“Korrika euskararen aldeko lasterketa erraldoia da eta guztiok erabili behar dugu Korrika euskara aldarrikatzeko; hori karreran ikusi behar da”*. Apirilaren 16an heldu, eta egun berean alde egingo du Korrikak eskualdetik. Nork hartuko dio Korrikari euskara aldarrikatzeko lekukoa? *“Denoi dagokigu urte osoan zehar lekukoa hartzea”*. Gainontzeko euskalakariok bezala, ‘UK-lariok’ ere horretan ibiliko gara! ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Etxe sorgindua zaharbarrituta

Arkitektura-ezaugarriak mantenduz zaharbarritu dute Basagoiti Etorbideko eraikina; **udal zerbitzuak** hartuko ditu **eguzki energiaz hornituko** den **eraikin historikoak**

Herritarren artean Etxe sorgindua edo Etxe arrosa izenez ezagutzen den udal eraikina zaharbarritu dute udal zerbitzu egoitza bihurtzeko. Arkitektura ezaugarriak mantendu dituzte; izan ere, 100 urtetik gorako historia duen eraikin koloniala da Basagoiti Etorbideko 20. zenbakikoa. Eguzki energiaz hornituko da.

1889an Jose Olozaga Gallarretaren aginduz eraiki zen Basagoiti Etorbideko 20. zenbakian dagoen Etxe Sorgindua. Francisco Ciriaco Menchaca Laukizeko arkitektoa izan zen etxea diseinatzearen arduraduna. Olazaga Kubara emigratu zuen arotza izan zen; irlan aberastu eta Maria Eugenia Velazquez Dominikar Errepublikako opera abeslariagaz ezkondu zen. XX. mende hasierako Getxoko joeragaz bat ez zetozen ohiturek, janzkerak eta apaintzeko erak eta opera abeslariak etxearen goiko terrazan ematen zituen erreztaldiek, herritarren artean Etxe Sorgindua izenez ezaguna izatera eroan zuten estilo kolonialeko etxebizitza. Olozaga eta Velazquez hil ostean, hainbat jaberaren esku egon zen eraikina, 1982. urtean Getxoko Udalak erosi zuen arte. Orduantxe pasa zen Etxe Arrosa izenez ezaguna izatera, Udalak arrosa-kolorea eman baitzion.

Etxe Sorgindua Hego Amerikako hiri arkitektura eredua da, estilo kolonial eta eklektikokoa, Frantziako barrokoaren, klasizismoaren eta arkitektura koloniala-



Basagoiti Etorbideko 20. zenbakian dago Etxe Sorgindua

ren ezaugarri batzuen nahasketagaz. Martxoan amaitu zen zaharbarritze prozesuan, arkitektura-ezaugarriak mantendu eta egokitzapen funtzionala egin dutela azaldu zuen aurkezpenean Joseba Arregi Hirigintza zinegotziak. Eusko

**«Etxe Sorgindua eguzki-energi-
az hornituko da eta zenbait
udal zerbitzu hartuko ditu»**

Jaurlaritzak monumentuen multzoko kultur ondarearen barruan sailkatu zuen Etxe Sorgindua.

Miloi bi euroko aurrekontua izan duten zaharbarritze lanen barruan, fatxada, irrisgarritasuna eta barruko antolakuntza aldatu da, baina materialak eta zenbait elementu (aintzinako jantokia

eta egongelaren sabaiaren eskaiolazko moldurak, eskaileraren egitura eta egurrezko barrak e.a.) mantendu dira. Etxearen ezaugarri ziren mosaikoak berreskuratzen saiatu dira; sarrera nagusi-koa desmuntatu eta erdi sotora eroan dute. Bere ordean, kristalezko zorua jarri dute eraikin guztia kaleko argiz hornitu ahal izateko, sabaileihotik sartuko dena eta aipatutako erdisotoa ere argiztatuko duena. Lurra mugatzen duen hesia ere mantendu da.

Etxea eguzki-energi-az hornituko da eta zenbait udal zerbitzu hartuko ditu: *“Horrela herritarrek gestioak egitera hurbiltzen direnean bere barruko egokituagaz gozatu ahal izango dute, baita kanpokoagaz ere”*. Oraindik zehazteke dago zeintzuk izango diren hartuko dituen zerbitzuak. ○

Zozketa urte akabuan

Alangoko etxeen esleipena urte akaburako



Apirila amaieran zabalduko dituzte igogailuak

Gazteentzako alokairuzko lehenengo etxebizitza sozialak esleitzeko prozesua abenduan hasiko da; Alango inguruan eraikiko diren etxebizitzetarako hautagai izateko, nahitaezkoa izango da 2011 urtearen akabuan Etxebiden izena emanda izatea. Pisu horietako bat lortzeko baldintzak Eusko Jaurlaritzaren arautegiarenak izango dira, errolatze-ari dagokiona izan ezik; eskatzaileak edo bizi taldeko kide batek Getxon gutxienez hiru urtez jarraian edo azken 10 urteotan bost urtez errolatuta egon behar du.

Guztira 145 etxebizitza eraikiko dute; horietatik 83, 35 urtetik beherako gazteentzat, 11 guraso bakarreko familientzat, 6 urritasuna duten pertsonentzat eta 45 kupo orokorarentzat. Garaje eta trasteleku banagaz banatuko dira etxebizi-

tzak; horrez gain, Udalak aparkatzeko 103 leku gehiago egokituko ditu inguru berean. Etxebizitzaren lanak urte akabuan hasia eta 2014rako amaituta egotea aurreikusita dago.

Inguru berean eraikitzen ari diren eta Arene kalea Alangogaz lotuko duen hiru igogogailuak apirila amaieran jarriko dituzte martxan. Igogailuak doakoak izango dira eta bakoitzak 16 lagunentzako lekua izango du. 28 metroko aldea gaintutako dute, 10 solairu gutxi gorabehera. Lehenaren arenetik Euskal Herria kalera joango da, bigarrena Euskal Herriatik Juan Bautista Uribarrira eta hirugarrena azken horretatik Alangora. Horregaz batera, alde batean, hiru eskailera zatik osatutako oinezkoentzako ibilbidea egokitu dute. ○

ETORKIN TALDE GEHIEN BILBOREN ATZETIK

Bakeaz elkarteak egindako diagnosiaren arabera, Bilboren atzetik Getxo da etorkin elkarte gehien duen udalerria. Guztira zortzi elkarte dago Getxon, Hego Amerikako pertsonak osatutako bi, bat Magrebekoek osatua, bat Asiakoek eta lau mistoak. Horrez gain, Getxoko Etorbidearen Plataforman batu ziren elkarteak joan den urtean; hori ezaugarri esanguratsu bezala azpimarratu dute ikerketaren egileek. Elkarte gehienak 2005 eta 2009 urteen artean sortutako elkarteak dira. Horietan gizonak gehienak badira ere, Getxon, emakumeak gehiago dira zuzendaritza batzordeetan.

MARTIKOENA 16.EAN AURKITUKO GAITUZU!

Aldizkarian aurreratu genizun bezala, Getxoko zenbait elkarte Martikoena kaleko 16. zenbakiko udal eraikinean batu gara. Martxo akabuan amaitu ziren eraikinaren zaharbarritze lanak. Lehenengo solairuan, Berdintasun Zerbitzua dago. *“Lana errazteko, jarduera osoa zentralizatu”* gura izan dutela aipatu zuen aurkezpenean Keltse Eiguren Berdintasun teknikariak. Gela nagusia, Jabekuntza Eskolako ikastaroak eskainiko dira eta gainontzeko bulegoetan اندازkoen elkarteak egongo dira. Bigarren solairuan ALBE, Bizarra Lepoan, Egizu eta UK-ko lagunok aurkituko gaituzue. Beheko solairuan barriz, Sexu Informazio Bulegoa eta Taxi Zerbitzua. Ondo etorri!

LANTEGI BATUAKEN ZENTROA URRIRAKO

Andra Mariko Gabriel Ramos Uranga kalean dagoen 4.600 metro koadroko Lantegi Batuak zentroa barria, urrian jarriko da martxan. Teknologia barrien inguruan, 40 pertsonari emango dio beharra, horietatik 30 urritasun batez; zerbitzu okupazionalan, eskualdeko adimen urriko 100 lagun ariko dira. Artxiboen digitalizazio kudeaketa egingo dute, dokumentuen suntsiketa konfidentziala egiteko prozesuak barne.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak

Zurezko Egiturak

Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144

<http://www.etxeart.com>

Willy Uribe > idazlea

“Pertsona bat bestearen itzalpean jarrarazteko erak ikertu gura nituen”



Willy Uribe idazle algortarra

UK-ko orrialdeetan behin baino gehiagotan ikusi ahal izan dugu Willy Uribe argazkilariaren lana. Baina, oraingo honetan, Uribe idazleagaz egin dugu berbalditxo. Martxoan aurkeztu zuen azken eleberria: *Los que hemos amado*. Surfa ardatz hartuta, algortako gazte bik Marokon zehar egindako fikziozko bidaia deskribatzen du. 80ko hamarkadako surflari belaunaldiari omenalditxo egin die; baina lagun bien istorioak, olatuetan ondo pasatzetik haratago doan mezua gordetzen du atzean: menpekotasuna. Hori da idazle algortarrak landu gura izan duena.

—Zer zeneukan buruan eleberria idazten hasi aurretik?
—Menpekotasunari buruz idatzi gura nuen; menpekotasuna atrezzo guztian bilduta. Pertsona bat bestearen itzalpean jarrarazteko erak ikertu gura nituen.
—Zer aurkituko dugu kontakizunean?
—Ibai eleberria da: badator eta badoa. Algortako gazte bi dira protagonistak, 1981. urtean Marokora bidaian doazena. Batek ez dauka gauza handirik; besteak, barriz, danetik dauka. Lagunak dira. Errepide eleberria ere bada; bidean behe-

rantz egin ahala, alde dramatikoak agertuz doa. Lehenengo parteak Algorta-Asaka du izena, bide hori egiten baitute. Asakan gertaera batek goranzko, itzulerako, bidea egitera eramaten ditu; horregatik, bigarren parteak Asaka-Algorta du izena. Joan-etorri bidaia da.
—Surfagaz oso lotuta egon zara beti; eleberri autobiografikoa egin gura izan duzu?
—Esperientziak ditu, nahiz eta ez den nire istorioa. Lehenengo pertsonan kontatuta dago, asko sartzen naiz, baina inork

ez ditu nire bizipenak aurkituko kontakizunean. Algortan surfeatu nuen garai hartan, Txoposen porruak erretzen ibili nintzen, Marokora joan eta etorri den jendea ezagutu dut... belaunaldi eleberria da, baina literatura hutsa.

«Belaunaldi eleberria da, baina literatura hutsa»

—Zure lan asko surfa eta itsasoari lotuta daude. Zure inspirazio iturria al da?
—Ez, ez bakarria behintzat. Kontu handiz ibili behar dut surfa lantzeko orduan; hiru eleberritan besterik ez dut erabili. Kontu handiz lantzen dut surfa irakurleak serioa ez den gaia dela pentsa ez dezan. Surfa landu ahal dudala ikusten dudanean egiten dut, baina aurretik ondo pentsatzen dut.
—Zelako harrera izan du eleberriak?
—Getxon aurkeztu eta gero Madrilen egon nintzen; han ez nau inork ezagutzen eta, hala ere, eleberriak interesa sortu zuen. Editoreak bigarren edizioa kaleratu behar dugula esan dit; horrek ez du esan gura dana saldu denik, baina bai dana banatu dela. Lehenengo aldia da bigarren edizioa atera behar dudana. Lagun eta hurbilekoei gustatu zaie. Aurrekoa, *Cuadrante Las Planas*, eleberri konplikatuena da irakurle batzuentzat; lau narrazio plano, trikimailu ugari... kaotikoa da. Ni harro nago horretaz, baina badakit hau errazagoa dela irakurlearentzat. Gainera, danetik ukitzen dut, narrazioa aurrera doa baina beste istorio batzuek azalduz elikatzen saiatzen naiz.
—Zertan zailtza orain?
—Eleberriaren sustapenagaz amaitu eta aspaldi dudana zerbitu idatzi gura dut. ○

Info+: willyuribe.wordpress.com

Txorimalok baditu 5 urte Hilaren 12tik 16ra ospatuko dute Algortako gazteek Gaztetxearen urteurrena



KOP talde kataluniarrek joko du urteurreneko egun handian

“Iraganeko ametsak egia bihurtu” gura dituzte beste urte batez Algortako Txorimalo Gaztetxeko kideek. Apirilaren 12tik 16ra ospatuko dute 5. urteurrena eta horretarako denetarik duen egitaraua prestatu dute. Martitzenean hasiera ekitaldiagaz, bertsolariakaz eta Txorimalori buruzko bideo emanaldiagaz hasiko dira ospakizunak, 18:30etik aurrera Txorimalon. Hurrengo egunean, agorraldiagaztan parte hartzeko aukera egongo da 17:00etan; ondoren film-laburrak proiektatuko dituzte. Eguenean artisten txanda izango da; Txoriphot Argazki Txapelketako irudien erakusketagaz batera,

antzerki emanaldia eta Moby Dick kantautorearen kontzertua izango dira.
Hilaren 15a, Herriaren Eguna izendatu dute; Gaztetxetik Algortako erdigunera hurbildu eta umeentzako jolasak, Txan Magoa, poteoa eta bakarrizketa saioa egingo dute 16:30etik aurrera. Zapatua egun handia izango da. Goizean goiz, AEK-k antolatutako 17. Korrikagaz bat egingo dute; ondoren, tortilla txapelketa eta herri-bazkari ostean, Gaztetxeraino kalejiran joan eta KOP, Marmoka Baltzak eta erromeriaren musikagaz emango diote amaiera urtebetetzeari. ○
Info+: txorimalogaztetxea.blogspot.com

EMAKUMEAK MUSIKAN JAIALDIA 16AN ETA 17AN

Emakumeak Musikan jaialdiaren XI. edizioa egingo dute apirilaren 16an eta 17an Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, *“Mujeres en la música”* elkarteak antolatuta. Zapatuan piano eta biolontxelo kontzertua eskainiko dute Nieves Pascualek eta Rafal Jezierskik. Hurrengo egunean, emakumeak eta pianoari buruzko mahai-ingurua antolatu dute 18:00etarako; Anna Bofill, Sara Gutierrez eta Magaly Ruizek parte hartuko dute, Gotzone Higuieraren zuzendaritzapean. Ondoren, Elena Santosen piano kontzertuaz gozatu ahal izango da. Sarrerak hilaren 11z geroztik eskuratu ahal izango dira Getxoko Kultur Etxean edo Musika Eskolan.

EIDER RODRIGUEZ IRAKURZALEEN TXOKOAN

Egizu Getxo Euskaldun elkarteak aurrera jarraitzen du Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoagaz. Gotzon Barandiaran eta Aingeru Epaltza izan dira beste askoren artean 2010-2011 ikasturtean Aldai Patronatutik pasa direnak. Apirilaren 14an, Eider Rodriguez idazle oreretarra hurbilduko da Algortara, *Katu jendea* ipuin-liburuaren inguruan berba egitera. Zazpi istorio laburretan gizon eta emakumeen sentimenduak lantzen ditu Rodriguezek. Saioa 20:00etan hasiko da.

HAURRENTZAKO ZINEA MUSIKA ESKOLAN

Aste Santuko oporretan goza dezaten, XXVIII. Haur Zinema Jardunaldiak antolatu dituzte apirilaren 26tik 30era. Guztira, sei film proiektatuko dituzte, baina horietako bat baino ez da euskaraz izango. Emanaldiak Musika Eskolan izango dira, 17:00etan eta 2,10 euro ordaindu beharko da filma ikusteko. 30ean izan ezik, emanaldi bi egongo dira, gainontzeko egunetan emanaldi bakarria egongo da; ondoko filmak ikusi ahal izango dira: *El pequeño rey Macyus*, *La montaña mágica*, *Rolo eta Ilarraren sekretua*, *Ga'Hoole: La leyenda de los guardianes*, *Arthur y la Venganza de Maltazard* eta *Cazadores de dragones*.

Helea Saiz eta Seco Djassi > Medicus Mundiko kideak

“Ginea Bissauko emakumeen egoera aldatzeko estrategia baten hastapena da egitasmoa”

Osasun alorrean lan egiten du Medicus Mundi Gobernuz Kanpoko Erankundeak. Leioako Udalagaz egitasmoa gauzatzen ari da Ginea Bissauko emakumeakaz, eta beraien egoera islatzen duen dokumentala eta egitasmoa aurkeztu zuten martxo amaieran.

—Ginea Bissauko emakumeei buruzko filma aurkeztu duzue, zer dela eta?

—Leioako egitasmoa testuinguru batean kokatzeko aurkeztu dugu dokumentala. Sexuak eta ugalketak osasunagaz harreman handia dauka, zehazki, Ginea Bissauko emakumeen harretagaz. Hegoaldean lan egiten dugu, Tite sektorean, herrialdeko alderik txiroenetakoa da. Dokumentalak kontatzen du Gineako emakumeen egoera, dituzten zailtasunak eta erronkak, pairatzen duten bereizkeria, hori dena maila guztietan: ekintza politikoa, ikasketak e.a. Portugalgo Vale de Florreko Maeques Institutuak egin zuen eta oso ondo islatzen du Ginea Bissauko emakumeen egoera, horregatik aukeratu dugu. Leioako Udaleko egitasmoak emakumeetako batzuegan eragin positiboa izatea espero dugu.

—Zertan datza egitasmoa?

—Bi alde dauzka. Batetik, Osasun



Ginea Bissauko Tite sektoreko emakumeakaz lanean dabiltza Saiz eta Djassi

Zentroetako sexu eta ugalketa zerbitzuetara emakumeen sarbidea hobetzea; bestetik, osasun heziketa. Osasungintza egoera txarrean dago han, gaixoak ordaindu behar du guztia: guanteak, sendagaiak, garraioa, janaria e.a. Zerbitzuak kit bat ematen die haurdunaldian egin beharreko lau bisitak egin dituzten emakumeei. Hamar laguneko taldeak egiten du jarraipena herrixketan. Haurdun dauden emakumeak identifikatu eta informatzen

ditu. Kit horiekaz zerbitzua doan ematen daie. Erditu ondoren ere jarraipena egiten dute.

—Noiz arte luzatuko da proiektua?

—Zortzi hilabetez gauzatuko da. Ginea Bissauko emakumearen egoera apur bat aldatzeko Estrategiaren hastapena da, ez bakarrik osasunari dagokionez, emakumea bere bizitzaren eta eskubideen jabe izan dadin, eskubideak dituela jabetu eta aldarrika ditzan. ○

Azoka Pinuetan

Nekazaritza azoka **apirilaren 17an** izango da, **bertoko jakiak** dastatzeko aukera



32 postu ipiniko dituzte Pinuetako kaleetan

Jatun eta edale onak gara euskaldunak, hori ezin uka, beraz, ezin galdu aste-buru honetako aukera. Pinueta auzoan Nekazaritza eta Abeltzaintza azoka egingo duten beste behin ere apirilaren 17an, domeka, goiz osoan zehar.

Euskal baserrietako produktuak dastatzeko aukera izango da, baita erosteko ere, ohi dan legez. Bertoko sagardoa, txakolina, gazta, pate, ezti, barazkiak, pastela edota txarrikiak ez dira faltako hitzordura.

Goizeko 10:00etatik aurrera prest egongo dira postuak, trikitilariak eta txistulariak giroa pizten hasiko dira. Guztira 32 postu ipiniko dituzte eta 25 ekoizleak erakutsiko dituzte euren produktuak.

Baina beste gauza asko erakutsiko dute azokan.

Aurten gauza bitxia izango da, Baserriko abere nanoen erakusketa: behiak, ahuntzak, zaldiak e.a. Batez ere umeak erakarri ohi dituzte, eta goizean zehar, poney gainean ibiltzeko eta taillerretan parte hartzeko aukera izango dute. Horretaz gain, baserriko lanbideen eta herri-kirol erakustaldia izango dira.

Ohitura bihurtzen ari da azoka eguna auzoan. Lehena egin zuten 1999an eta ordutik ez dute huts egin. Eguna polita izaten da eta auzoko bizitza ere pizten du, gero eta jende gehiago hurbiltzen da giro parebakoaz goatzera. Domeka 17an, Pinuetan badago zer egin. ○

NARRAZIOAK EMATEKO AZKEN EGUNAK

Ni gaztea nintzenean Narrazio Lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna izango da apirilaren 28a, eguna. Beraz, oraindino garaiz zabilta zure idatzia aurkezteko. Gura duen guztiak parte har dezake, haur, gazte zein nagusi, hainbat maila dago-eta. Gehienez lan bi aurkez ditzake pertsona bakoitzak, euskaraz edo gaztelaniaz. Gehienez ere sei orri izan ditzakete lanek, baina jatorrizkoak, saritu eta argitaratu bakoak izan behar dute. Kultur Leioan aurkeztu behar dira, bertaratuz edo postaz. Ekainaren 10ean banatuko dituzte sariak eta lan irabazleak argitaratuko dituzte 2011ko Lehiaketa Liburuan.

Info+: www.kulturleioa.net

ZABALIK DAGO PINUETAKO LUDOTEKA

Azkenean zabaldu dute Pinueta auzoko ludoteka, Maiatzaren Bata kaleko lokalean. Udaletik jakinarazi dutenez, ludotekak aisialdian goatzeko eta ikasteko espazioa eskaini gura die 6 eta 12 urte bitarteko Leioako umei. Horretarako, *“aisialdirako jarduera-eskaintza oparoa aurkeztu du, guztiak ere irudimena garatzera eta parte-hartzea sustatzera bideratuta”*. Astelehenetik barikura dago irekita, 17:00etatik 20:00etara. Aste Santuko eta Gabonetako oporretan ere egongo da zerbitzurik, 11:00etatik 14:00etara.

ZIRKU IKUSKIZUNA MAIATZAREN 7AN

Oraindino goiz bada ere, maiatzaren 7rako sarrerak hartzeko tentuz ibili beharko duzu, izan ere *Plecs* izeneko zirkuko ikuskizuna eskainiko du Kataluniako Enfila-T taldeak Kultur Leioako Auditoriumen. Arrastiko 19:00etan hasiko da, umeek 5 euro ordaindu beharko dute sartzeko, eta nagusiek, 10 euro. Lau lagunek osatzen dute ikuskizuna eta partitura bat jarraitzen saiatuko dira akrobaziak eginez soka, tekla, hodi eta artazi artean.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



Carrefour

Viajes

Bidaia-agentzia berria Leioan

Estartetxe 19, Tf. 944 63 82 42

es_viajes1375@carrefour.com

Bidaiak guztien eskura



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Iker Franco > Film egilea

“Sariek lana publizitatzen laguntzen dute, baita ate asko zabaldu ere”

Jaque lehen film laburragaz hainbat sari irabazi du Iker Franco erandioztarrak. Dagoeneko hurrengo lana dauka buruan eta finantziazio bila dabil. Irailean grabatu gura du.

—Zure lehen film laburra egin duzu eta dagoeneko arrakasta lortu duzu.
—Ekainean amaitu genuen eta zabal-tzen hasi ginen. Egitasmo txikia zen, baina oso interesgarri bihurtzen ari da. Zortea izan dugu, abenduan eman ziguten lehen saria Zaragozan, eta ez dakit domino efektua den, baina beste sariak atzetik etorri dira. Azkenak izan dira Madrilgo Boadilla del Norten eta Houstonen, egunotan esan digute. Oso pozik gaude, ez genuen espero.
—Aurrera egiteko indar handia eman-gu du?

—Bai, gainera, bigarren filma idatzita daukagu, eta egia esan, horrelako kon-tuek lana publizitatzen laguntzen dute eta ate asko zabaltzen dute. Iñaki Oribe da produktorea eta guztiaz arduratzen ari da. Askok zor diot. Orain finantzia-zioa behar dugu, kapital pribatua badau-kagu, baina kapital publiko bila gabiltza. Erandioko alkateagaz batu ginen. Hemen grabatu gura dugu eta proiektu interesgarria deritzo, beste gauza bat



Bere webgunea: www.ikerfranco.com

izango da finantziazioagaz lagundu edo ez, baina jarrera ona erakutsi du.
—**Noiz grabatu gura duzue?**
—Uda ostean. Orain presazkoa litzateke eta udan oporraldia da, gainera, bero handiegia dago fokoakaz eta ibiltzeko.
—**Zer gai landuko du?**
—Konplikaturik esatea, erakutsi baina guztia esaten ez duen zinema gustuko dut, ez dut gura dena eginda eta itxita ematea. Barkamenari buruz hitz egingo dugu nolabait: gaztetan gurasoen kontra

arneguka egiten dugu, baina haztean eta heltzean, konturatzen gara egindako gauzetako asko gure hobebeharrak egin zituztela. Jendea harritzen da, ni oso irekia naizelako, hiztuna, baina gero gauza oso intimoak ateratzen zaizkit.
—**Zelan hasi zara filmak egiten?**
—Argazkilaritza ikasi nuen eta erre-alizazio modulu antzeko bat ere egin dut. Gainera, umetatik oso gustuko izan dut zinema, aitak ere bai; Super 8 kamera zeukan eta grabatzen irakatsi zidan. ○

Dantzari Eguna *Goikoan*

Euskal Herriko Dantzari Eguna **maiatzaren 1ean** izango da **Erandiogoikoan**



Bazkalondoan erromeria eskainiko du Luhartz taldeak

Erandiogoikoako Arteaga zelaiguneak hartuko du aurtengo Euskal Herriko Dantzari Eguna, maiatzaren 1ean, domekan. Euskal Herri osotik iritsitako dantza taldeek erakutsiko dituzte hainbat herrialde-tako dantzak.
Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatzen du Dantzari Eguna urtero, eta ekimen horren bitartez, “*Euskal Herri guzti-ko dantza taldeetako kide gazteek egiten duten lana eskaini eta erakutsi gura*” du. Era berean, bertoko dantza den bezalakoa erakutsi gura dute.
Eguerdiko 11:30ean hasiko da dantza erakustaldia. bazkalondoan, barriz, erro-

merian dantzatzeko aukera izango da, Luhartz taldeagaz.
Baina Dantzari Eguna ez da mugatuko domekara. Zapatuan ere, apirilaren azken egunean, euskal dantzak erakutsiko dituzte, baina Erandioko taldeek, Goi-Aldek, Trabuduk eta Uztargik. Saio bi egingo dituzte, goizean eta arrastian.
Goizean umeak arituko dira Astrabuduko Mendiguren plazan 11:30etik aurrera. Arrastian, barriz, dantza erakustaldia egingo dute hiru taldeek Altzagan, azoka zaharrean, 20:30etik aurrera. Beraz, herri osoa bustiko dute asteburuan dantzek eta jauzi dotoreek. ○

LIBURUAREN EGUNA AURRERATU DUTE

Apirilaren 23an da Liburuaren Eguna, baina aurtun Aste Santu barruan denez, ospakizuna apur bat aurreratu dute Erandion, apirilaren 14ra. Ohikoa da herri guztietan literaturagaz lotutako ekitaldiak eta azokak antolatzea. Erandion ere hainbat ekimen gauzatuko dute egun horretan, betiere liburuakaz harremanetan. Astrabudua zein Altzaga auzoetako plazetan eta arrastietan 16:30etik 19:30era. Berezik umeentzako prestatu dituzte eta aurtengo leloa “*Altxorren uhartea*” izango da.

OLGETAN SOLAS, IZENA EMAN DAITEKE

Maiatzaren 15ean eta 29an, eta ekainaren 12an Olgetan Solas programa egingo dute umeentzat. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatu du eta helburua da “*guraso eta seme-alaben artean euskarazko harremana sendotzea*”; 6 eta 12 urte bitarteko umeei begirakoa da. Apirilaren 28ra arte eman daiteke izena Euskara Zerbitzuan, Udaletxeko eraikineko bulegoan, Irailaren 23a plazan. Telefonoz edo internetez ere egin daiteke.

Izena emateko: 944 890 128 edo euskara@erandioko-udala.net

PIRRITX ETA PORROTX MAIATZEAN IKUSTEKO SARRERAK SALGAI

Apirilaren 15era arte eros daitezke sarrerak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun barria ikusteko: “Ongi etorri, Pupu eta Lore”. Udaletxeko erakusketa gelan salduko dituzte, 17:30etik 19:30era. Hilabete barru izango da antzezpena, maiatzaren 14an, zapatuan. Saio bi egingo dituzte, 16:30ean eta 18:30ean, Altzagako azoka zaharrean. Sartzea 7 euro ordaindu behar da eta bildutako dirua San Agustin jaietan ekimenak antolatzeko erabiliko dute, izan ere, Erandioko Jai Batzordeak antolatu du.

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

SAHARAKO DORA DAHIRA,
SOPELAGAZ SENIDETUTA

Saharako Dora dahiragaz senidetzeko asmoa iragarri du Sopelako Udalak. Martxoko udalbatzan hartu zen erabakia, eta modu honetan, Tindufeko kanpamenduetan dagoen Doragaz harremana sendotuko da. Izan ere, Sopela eta Sahararen arteko harremana ez da atzo goizekoa: Nuyum taldeari esker, dahirara horretan nagusientzako lokala eraiki eta hainbat ekimen egin dira.

MAIATZEAN, LOROÑOKO
PASABIDEAREN LANAK

Sopelako erdigunetik hondartzetara jaistea errazagoa izango da hurrengo urtetik aurrera. Maiatzean Loroñon oinezko eta txirrindularientzako pasabidea eraikitzeko lanak hasiko dira, Sopela eta Barrika lotzen dituen BI-2122 errepidearen gainetik. Pasabideak 600.000 euroko aurrekontua du, eta aurreikuspenen arabera, 2011. urte amaieran amaituko dira obrak.

HITZALDIAK EGONGO DIRA
GIZA ESKUBIDEEN ASTEAN

Giza Eskubidean Asterako hainbat jarduera izango da apirilaren 16ra arte Kurtzio Kultur Etxean. Apirilaren 12an Saharari buruzko berbaldia izango da Nuyum elkartearen eskutik. Hurrengo egunean, Palestinari buruzko zine-foruma egongo da eta 14an, Kolonbiari buruzko solasaldia. Ekitaldi guztiak 19:00etan izango dira.

800 ETXEBIZITZA HUTSIK
DAUDELA SALATU DUTE

Udalak herriko gazteak “kale gorrian bizitzera” kondenatu gura dituela salatu du Gazte Asanbladak. Altxariak kalera ateraz, etxebizitza eskuratzeko ezinezkoa dela irudikatu gura izan dute gazteek. Era berean, Sopelan 800 etxebizitza hutsik daudela eta alokairuzko etxebizitzarik sustatzen ez dela salatu gura izan dute Asanbladako kideek.

Irakurri eta gozatu!
Apirilaren 18tik 30era **tailerrak, ikuskizunak,
eta Euskal Liburu Azoka** antolatu dute



Apirilaren 30ean Euskal Liburu Azoka ospatuko da, Udaletxe plazan.

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioar-teko Eguna ospatuko da, eta egun horren harira, hamaika ekitaldik beteko du Sopela. Liburuak eta irakurzaletasuna orokorrean bultzatzea izango da egitarauaren helburu nagusia. Apirilaren 18an, 19an eta 20an izango dira lehen ekimenak, egun horietan Irakurketa Txokoa izango baita 17:00etatik 20:00etara, Kurtzion. Adin guztietako herritarrek izango dute parte hartzeko aukera. Txotxongiloek hartuko dute lekukoa apirilaren 27an, Kontakatilu taldearen ‘Katilukadak’ ikuskizunagaz.

Emanaldia 18:30ean izango da, Kurtzion, eta sarrerak hiru euroren truke salduko dira.

Azkenik, apirilaren 30ean Kurtzion umeentzako ‘Harriz Harri’ ikuskizuna egongo da, saio bitan: 18:30ean eta 19:30ean. Egun horretan bertan, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta, Euskal Liburu Azoka izango da, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, Udaletxe plazan. Eguraldi kaxkarra izanez gero, pilotalekuan egingo litzateke. Era berean, Azokan hainbat tailer egingo dira. ○

Aitor Mantuliz > Mekong ibaia jarraitu du bizikletaz eta piraguaz

“Mekong ibaiagaz amets egiten egon nintzen, eta azkenean ametsa bete dut”



Martxoaren 18an hitzaldia eskaini zuen Kurtzion. Info+: <http://nockdeblotas.blogspot.com>

Badira bizitza osoan euren ametsak errealitate bihurtzen saiatzen diren pertsonak. Filosofia horri helduta bizi da Aitor Mantuliz 29 urteko sopeloztarra. Iazko uztailetik abendura Mekong ibaiaren ibilbidea jarraitu zuen bizikletaz eta piraguaz, eta gogorra izan zela aitortu duen arren, merezi duela argitu du.

—Nondik etorri zitzaizun bidaia egiteko ideia?

—Orain dela hiru urte lagun batek Tailandiara joan nintzen 20 egun. Asko gustatu zitzaidan eta bertan denbora gehiago jarraitzea erabaki nuen: bizikleta hartu eta Laos eta Camboya zeharkatu nituen. Mekong ibaiak arreta piztu zidan eta piraguan jaisten nuela amets egiten hasi nintzen. Etxera itzuli eta amets berdinagaz jarraitu nuen. Urte bi beharrean eta aurretik ibili ostean, azkenean ametsa bete dut.

—Nola hasi zenuen bidaia?

—Zerbait ezberdina egiteko gogo nuen. Mekong ibaia Vietnamen itsaso-

ratzen da, bertan bizikleta hartu eta ibaiaren ibilbidea jarraituz sorburura joateko asmoa nuen. Ia lau hilabetetan 6.400 kilometro egin nituen, hainbat herrialdetatik: Vietnam, Kanputxea, Laos, Txina, Tibet... Azkenean, baina, sorburutik 300 kilometrora lotu nintzen, errepidea bertan amaitzen zelako.

—Orduan piragua hartu eta Mekong ibaia jaisten hasi zinen, ezta?

—Bai, 2.200 kilometro egin nituen ia hilabete bian. Lagun italiar bat egin nuen

«Piragua puzgarriakaz
Mekong ibaia jaitsi dugun
lehenengoak izan gara»

eta nigaz jaitsi zen: puzgarriak diren piraguakaz Mekong ibaia jaitsi dugun lehenengoak gara. Fisikoki gogorrena bizikletaren zatia izan da, baina ibaian ere hainbat ezusteko izan genituen. Hala ere merezi du: bakardade sentimendu hori, izarren argitasuna... Tibeten eta ibaian zehar paisaia ikusgarriak ikusi ditugu. ○



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK
hAMILTON
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

SORTU DA ‘KUKULLAGA’
JAI BATZORDE HERRIKOIA

Udabarria heldu eta jaietan pentsatzen hasi zara dagoeneko? Berangon ere bai. Jaiak beste modu batean antolatzeko asmoz, herriko kirol eta kultur eragileak batu eta ‘Kukullaga’ Jai Batzorde herrikoia sortu dute. Aurtengo Santa Ana eta Santo Domingoen kudeaketa jai batzordearen esku lotuko da, eta gogoa eta ilusioa duten berangoztar guztiak animatu dituzte bertan parte hartzera: “koloretako batzorde parte-hartzailea sortu gura dugu, koloretako jai parte-hartzaile eta herrikoiak sortzeko”. Bilerak astelehenetan egiten dituzte, 19:30ean Berangoetan. Animatu!

AURTEN, PASIO BARIK
LOTUKO DA BERANGO

30 urtez eten barik antolatu ostean, aurtengo Aste Santuan ez da Berangoko Pasiorik antzeztuko. Fernando Ansoleaga ACADAEko kideak argitu duenez, herritarren parte-hartze falta izan da honen arrazoi nagusia. “Azken urteetan parte-hartzeak behera egin du, eta aurtun Pasioa kategoriagaz eta duintasunagaz egiteko jende nahikorik ez dago”. Hurrengo urtean barriro jendea batzen saiatuko direla argitu du Ansoleagak, eta oraindino ez du esperantza galdu: “Ikusleak behintzat beti izan ditugu, pena izango litzateke galtzea”. Berangoko Pasioa eskualdean antolatzen den mota honetako antzeztan bakarra da, eta Bizkaian beste hiru herri edo auzotan antolatzen dira: Arkotxan, Balmasedan eta Durangon.

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net

Illeta kalea 1• ALGORTA

Irakurzaletasuna sustatuz
Apirilaren 11tik 17ra arte **Liburuaren Astea**
antolatu dute, eta tailer bereziak egongo dira



Apirilaren 17an III. Elkartasun Merkatua izango da Berangoko Pilotalekuan

Irakurtzea gustuko duenak hainbat ekimen izango du Berangon apirilaren 11tik 17ra arte. Izan ere, Liburuen Nazioarteko Egunaren harira, Kultur Etxeak Liburuaren Astea antolatu du. Aste osoan zehar, Berangoetako liburutegia kalean egongo da eta tailer bereziak egingo dituzte. Ludotekak eta Haur Liburutegiak ere euren egunero-kotasuna aldatu, eta biak alkarregaz, jolas eta tailer bereziak egingo dituzte kalean. Betiere, eguraldia lagun izanez gero.

Apirilaren 14an, bere aldetik, ipuin

kontalariaren txanda helduko da, Maite Arreseren eskutik. 3 eta 10 urte bitartekoentzat “Txoritxo batek esan dit” ipuina kontatuko du, 18:30ean Berangoetan. Apirilaren 17an, domekan, egingo da ekitaldi nagusia. Goizeko 11:00etatik 19:30 arte Liburu erabiliaren III. Elkartasun Merkatua ospatuko da Pilotalekuan. Liburu guztiak euro baten truke salduko dira, eta ateratzen den dirua Tierra de Hombres elkartearentzat izango da. Era berean, egun horretan tailer bereziak, puzgarriak, bideokontsolak eta berbena egongo dira. ○

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

A. Zarauza, J. Sepulveda eta G. Sepulveda > *GustArT*

“Bezeraoagaz interakzioa bilatzen dugu, artea eta diseinua uztartuz”



Maiatzean Portugaleten duten tailerraren inaugurazioa egingo dute gazteek

Lotura askorik izaten ez duten eremu bi batu dituzte Garoa Sepulvedak, Joel Sepulvedak eta Agirre Zarauzak GustArT proiektuan: arropa eta birziklapena. Portugaleten duten tailerrean, Plentzia eta Gorlizko hiru gazteek erabiltzen ez diren arropak itxuraldatu eta barriro janzteko prest uzten dituzte, euren ukitu pertsonala emon ostean. —Nondik dator GustArT sortzeko ideia? —Diseinua eta Arte Ederrak ikasi dugu, eta betidanik gustatu izan zaigu arroparen mundua. Artea eta diseinua uztartuz, birziklapena gehitzea bururatu zitzaigun, arropa barriro erabiltzeko helburuagaz. Bizitza barria emon gura izan diegu arropen. —Oraindino lehenengo urratsak ematen ari zarete, ezta? —Bai, ideia orain dela urte bi izan genuen, eta urtarilean egia bihurtzea

lortu genuen. Tailerra lortu dugu eta hori urrats handia da. Orain gure diseinua markatu behar dugu, jendeak GustArT identifika dezan. —Nolakoa da birziklapen prozesua? —Modu bi ditugu. Alde batetik, jendeak bere arropak ekarri ahal dizkigu. Oihalez egindako edozein arropak balio «**Erabiltzen ez den arropa eraldatzen dugu, horrela ez da barria erosi behar**» du: motxila, txamarra, gortina... Guk hautaketa egiten dugu, eta bezeraoagaz adosten dugu zer sortu. Interakzioa bilatzen saiatzen gara, diseinua eta artea uztartzen dugun bitartean. Bestetik, gure lerro propioa daukagu. Ideia ez da arropa barria erostea, baizik eta erabiltzen ez den arropa eraldatzea, beste itxura bat emon eta barriro janztea. ○
Info+: <http://www.gustart.es>

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

OPARIAK MODA GAZTEA

Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

Ikaskuntzaren Zailtasunak

(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza

eta Bigarren Hezkuntza

Basarrate 20 lonja 48991 (Algorta-Getxo)

Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

ERDU AUTOBUSEZ HERRI URRATS ETA IBILALDIRA!

Urtero legez, maiatzean galdu ezinezko egun bi izango ditugu: Herri Urrats eta Ibilaldia. Plentzian eta Gorlizen autobusak antolatu dituzte bertara joateko. Senpereko jaialdia maiatzaren 8an izango da, eta autobusak 8 euroko kostua izango du plentziar eta gorliztarrentzat. Gainontzekoentzat, 10 euro. Izen-ematea apirilaren 23an amaituko da. Ibilaldia, barriz, maiatzaren 29an ospatuko da Ondarroan, eta autobusak 5 euroko kostua izango du bi herri bietako auzokideentzat, eta 7 eurokoa bertakoak ez direnentzat. Izen-ematea: Topalekuan, Kultur Etxeetan eta Gazte Bulegoetan.

ERREPIDE BARRIA URDULIZKO OSPITALERA

Metroko pasabidea lurperatzeaz gain, errepide barria eraikitzeko asmoa iragarri du Urdulizko Udalak ospitale barriaren loturak hobetzeko. 1,5 kilometroko luzera izango duen errepidea Sopolako Gatzarriñe kalean amaituko da (BI-3124). Proiektuak 4 milioi euroko aurrekontua izango du, eta 2013ko maiatzean prest egotea aurreikusi dute.

METAPOSTAN IZENA EMAN DAITEKE LEMOIZEN

Metaposta doako zerbitzuan izena emoteko aukera egongo da apirilaren 15era arte Lemoizeko Kzgunean. Metaposta legezko frogabalia duen Interneteko kutxa gogorra da, e-posta izaera du eta interes pertsonaleko dokumentuak biltzeko balio du.

MANKOMUNITATEA

Lorak botatzeko aukera, Piropo Lehiaketan



Piropoak aurkezteko epea maiatzaren 2an amaituko da

Taloa izan nahiko nuke, zu nire txorizoa izateko! Nork esaten du euskaldunok barruan duguna azaleratzeko gai ez garela? Estereotipo hori irauli gura dutenek aukera izango dute Mankomunitateak antolatu duen Piropo Lehiaketan. Piropoek euskaraz idatzita egon beharko dute eta bi kategoriatan banatuko dira: 18 urtetik beherakoentzat eta gorakoentzat.

Testuak bidaltzeko epea maiatzaren 2an amaituko da, eta aukera bi egongo da: euskera4@uribekosta.org helbidera

mezua bidaliz edo euskaltegietan, kultur etxeetan eta beste hainbat eraikinetan egongo diren postontzietan testuak aurkeztuz. Mankomunitateak argitu duenez, piropoak sortzaileak, ez-sexistak, ez-arrazistak, adierazkorrak eta umoretsuak izatea baloratuko da. Mankomunitatearen web orriaren bitartez botoa eman eta irabazlea hautatzeko aukera egongo da. Saria ordenagailu txiki bana izango da kategoria bakoitzeko, piropo gehiago idatz ditzagun! ○

Api. 11 - Mai. 5

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Euskal jantziak.** Dendetan eta Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Apirilaren 18tik maiatzaren 2ra.

LEIOA

► **Vivir el arte, Javier Santurtun.** Kultur Leioan. Maiatzaren 8ra arte.

ZINEMA

URDULIZ

► **El secreto de la última luna.** Kultur Etxean. Apirilaren 16an, 18:00etan.

► **Rango.** Kultur Etxean. Apirilaren 23an, 18:00etan.

BERANGO

► **Ikasgela hegalaria.** Berango Antzokian. Apirilaren 17an, 17:30etan.

► **Perez sagutxo.** Berango Antzokian. Apirilaren 24an, 17:30etan.

GETXO

► **Rolo eta ilarraren sekretua.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilaren 28an, 17:00etan. 2,10 euro.

MUSIKA

ERANDIO

► **Aste Santuko entzunaldiak.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Apirilaren 14an eta 15ean, 19:30etan.

► **Udabarriko kontzertuak.** Altzagako Agustin Deunaren elizan. Apirilaren 16an, 20:00etan.

► **Daltzaldia.** Altzagako azoka zaharrean. Apirilaren 17an, 17:30etan.

► **Erakusketa**

Kepa Aceroren egitasmo barrirako oholak

Hilabete askoan munduan zehar hara eta hona ibili da Kepa Acero Algortako surflaria iaz, baina ez uste gelditzeko asmorik duenik. Bere proiektu barria da *We dream alone* eta dagoeneko erabiliko dituen taulak aurkeztu ditu. Ez dira nolanahikoak, bereziak dira, izan ere, hainbat artistak sortu dituzte diseinuak, bakoitzak bana: Angela Alonsok egin du *The Fang* izenekoa, Marcos Azpirozek *Sexy Fang*, John Franksek *TwinFin*, Jota Hopper Aretxabaletak *San Diego* eta Naiara Goikoetxeak *Bonzer*. Gainera, Geronimo taularen berrargitaldia ere egin dute. Bilboko Belaza galerian ikus daitezke guztiak apirilaren 23ra arte, Arrikibar plazako bosgarrenean.

• **Non:** Bilboko Belaza galerian • **Noiz:** apirilaren 23ra arte

GETXO

► **The Fakeband.** Romoko West Side Bar tabernan. Apirilaren 14an, 20:00etan. Doan.

► **Ondarreta koral.** Areetako Mesedeetako elizan. Apirilaren 15ean, 20:00etan.

► **Emakumeak musikan jaialdia.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilaren 16an eta 17an.

► **Zapato tipo bota.** Algortako The Piper's Irish Puben. Apirilaren 28an, 20:00etan. Doan.

SOPELANA

► **Kevin Grove eta Unai Azkarate.** Kurtzio Kultur Etxean. Apirilaren 15ean, 19:30etan. 3 euro.

ANTZERKIA

GORLIZ

► **Potxin eta Patxin pailazoak.** Iberrebarrin. Apirilaren 15ean, 18:00etan.

► **Ana Meabe ipuin kontalaria.** Ikastetxean. Apirilaren 16an, 18:30ean.

LEIOA

► **Días estupendos.** Kultur Leioan. Apirilaren 15ean, 20:30ean. 5 euro.

ERANDIO

► **Ipuinaren bila.** Altzagako azoka zaharrean. Apirilaren 16an, 18:00etan. Doan.

► **Una habitación al sol (Emakumeak Eszenan zirkuittua).** Astrabuduko Kultur Etxean. Apirilaren 30ean, 19:30ean. 2 euro.

SOPELANA

► **Katilkadak Txotxongiloak.** Kurtzio Kultur Etxea. Apirilaren 27an, 18:30ean. 3 euro.

► **Harriz harri.** Kurtzio Kultur Etxea. Apirilaren 30ean, 18:30ean. 3 euro.

BESTEAK

ERANDIO

► **Dantzaren Nazioarteko Eguneko ikuskizuna.** Altzagako metro geltokiko zabalgunean. Apirilaren 16an, 12:30ean.

PLENTZIA

► **Trikipoteoa Korrikaren alde.** Elizako plazan. Apirilaren 15ean, 19:30ean.

► **Erabilitako liburu azoka txikia.** Liburutegian. Apirilaren 18tik 29ra.

SOPELANA

► **Urdaibaira urteera: Kayak ibilbidea, Gaztelekuak antolatuta.** Apirilaren 30ean. Izen-ematea apirilaren 20ra arte. 10 euro.

BERANGO

► **Nekazaritza eta Eskulangintza Azoka.** Moreaga parkean. Maiatzaren 1ean.

OINUTSIK
KONSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net

OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



58 GEHITU dira

Dantzariak, filatelistak, txalapartariak, blogariak, eskautak... Getxoko elkartegintza bizirik eta herri euskalduna eraikitzeko prest dagoela erakutsi dute Gehitu Kultura egitaspora atxikitu diren 58 elkarteek. Bizarra Lepoanen GEHI programak, euskararen erabilera bultzatu gura duten ahalik eta elkarte gehien batu gura ditu. Aurkezpenean, telebista izarrak lez, photocall-etik pasa ziren elkarteetako kideak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Marrazoa

Algortako Portu Zaharrear

Marrazo muturluzea hurbildu zen apirilaren lehenagaz Algortako Portu Zaharrrera. Baina lasai egon, sirenoa onik dago. Biek partekatu zuten pintxoan barra asteburu hartan, izan ere, Arrantzale tabernan saldu zituzten marrazo haragiz egindako pintxoak. Irudian ikus daiteke marrazo muturluzea (Surus *Oxyrinchus*) Algortako merkatuko Molano arrandegian, zatitu baino lehen. Metro eta laurogei zentimetro luze zen eta ia 60 kilo pisatzen zuen. Oso bizkorra da, ia 80 kilometro orduko abiaduran igeri egin dezake eta gure kostaldean ere bizi da. Agian baten bat topa dezakegu olatuen artean, baina egun batzuez lasai asko begiratu ahal izan diogu.

MIKEL MARTINEZ

[berbetan]

Kuxkuxeatzen hasi eta zinearen historian lekua egin duten filmak egitera heltzea lortu du Helena Taberna zuzendari altsasuarrak. *Yoyes*, *Extranjeras* edo *La buena nueva* filmek egin dute ezagun gure artean; joan den urtean, 2008ko San Ferminetan hil zuten Nagore Laffageren historiaren inguruko film-dokumentala estreinatu zuen. Hurbileko gaiek hunkitzen dute Taberna, eta horietatik abiatuta eraikitzen ditu filmak. Zineak “kontzientziak mugitzeko” duen gaitasunean sinetsita Lamia Produksioak ekoiztetxea sortu zuen 2002an.

Helena Taberna

Kontzientziak mugitzeko zinea

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Iñigo Uriz**

—20 urte joan dira zine munduan murgildu zinenetik. Zelan heltzen da altsasuar bat filmak zuzentzera?

—Profesionalki orain dela 10 urte hasi nintzen, *Yoyes* nire lehenengo film luzearekin. Baina, egia da, orain 20 urte hasi nintzela film laburrak egiten eta kuxkuxeatzen, ogibide izango nuela pentsatu gabe. Betidanik maite izan dut zinea. 80. hamarkadaren bukaeran, bideoa agertu zen. Guztion eskura zegoen tresna zen bideoa eta niri lanean hasteko aukera eman zidan. Madrilera film labur egileen elkartera joaten nintzenean bideoan lan egitea ezinezkoa zela esaten zidaten. Denborak arrazoia eman dit; garai horretan bihurria izateak jarraitzeko aukera eman dit. Hasieran ikus-entzunezko esperimenduekin hasi nintzen, bideo-sormenarekin; aurrerago, narrazio lerroa aukeratu nuen. Hori da interesgarriena niretzat: indarra duten istorioak kontatzeari. Nire kasuan, sorlekuko istorioak kontatzen ditut. Hauxe da hain zuzen ere, gure zinea bizirik mantentzeko tres-

na; gure istorioak kontatzea, Hollywoodetik inoiz kontatuko ez dituenak. Hollywoodeko estrategiak kopiatzeko, efektu bereziak falta zaizkigu eta horretan galtzaile irtengo gara beti.

—*Yoyes*, *Extranjeras*, *La buena nueva*.. izen handiko filmak egin dituzu azken 10 urteotan. Zer ikusten duzu atzera begira jartzen zarenean?

—Pozik nago. Aurten urte oso polita izaten ari da, esker onaren urtea, hain zuzen

Horrez gain, Frankfurtoko Cervantes Institutuan, atzera begirakoa egin didate, Lola Millás idazleak aurkeztuta. Madrilera nire lehenengo film laburrarekin joan nintzenean, nire lana goraipatu zuen lehenengo emakumea izan zen Millás. Aurrera egiteko babesak eman zidan eta polita izan da berriro berarekin batzea. Nire filmak bere eleberritarako inspirazio iturri izan direla aitortu zidan. Lehen aldiz, atzera begira jarri naiz eta

“Gure inguruan gertatzen direnak egiatik kontatzen baditugu, unibertsal bihurtu eta edozein tokitan ulertuko dira”

ere. Urtarrilean ibilbide osoari emandako lehenengo saria jaso nuen, Sabino Arana Fundazioaren eskutik. Bestalde, martxoan Zinearen Akademiak, nire lau film luze eta lau film labur proiektatu zituen zine-ziklo batean. Zinegile eta lagunekin biltzeko aukera eman dit eta aretoak bete dira. Oso polita izan da.

gustura sentitu ere. Istorioak etorri egin zaizkit, ez dut aldezturik erabaki zer esan nahi nuen. Badago egia bat nire lanak unibertsal egiten dituen: gauza txikiak, gure inguruan gertatzen direnak egiatik kontatzen baditugu, unibertsal bihurtu eta munduko edozein tokitan ulertuko dira.



—Azken 10 urteotako zerbait aukeratu beharko bazenu, zer aukeratuko zenuke? —Ni oso amatxo naiz eta denarekin lotzen naiz. Hastapenetan izandako tolesgabetasuna ikusi eta samurtasuna sentitzen dut; agian orain ez nituzke egindako gauza batzuk errepikatuko, baina hasierako tolesgabetasun horrek eman dit nire istorioak kontatzen jarraitzeko aukera. —Hurbileko gaiak lantzen dituzu beti, sozialak eta batzuetan arriskutsu suerta daitezkeenak. Zerk bultzatzen zaitu horretara? —Egia esan, ez dakit. Berez etortzen zaizkit. Agian izango da zinea hainbeste maite dudalako eta kontzientziak mugitzeko duen gaitasunean sinesten dudalako. Istorioek hunkitzen nautenean, horien inguruan hausnartzeko eta nire partea jartzeko beharra sentitzen dut. Hori da, hain zuzen ere, plazer handia ematen didan beste gauzetako bat: gizar-tean dauden eztabaidei zinematik egin ahal zaien ekarpena ikustea. Hori da *Nagore* filmarekin gertatu dena; modu naturalean hainbat emanaldi publiko egiten ari dira, udalek deitzen digute... hori ikaragarria da. Aretoak betetzen ari dira eta jendeak eztabaidan parte hartzen du. Gaia dena delakoa izanda ere, ezinbestekoa da istorioa ondo eraikitzea. Hor dago nire esfortzua; behin gaia aukeratuta ondo aukeratu behar dut istorioa zelan kontatu.

—Gai bat lantzeaz damutu zara inoiz, arazoak edo zailtasunak ekarri dizkizulako? —Zailtasunak ekarri dizkidate, baina martxa gustuko dut. *Nagore*rekin, hain zuzen ere, oso gaizki pasa nuen. Gaia aukeratu nuenetik, istorioa kontatzeko tonu zuzena aukeratu nuen arte... Ez zen batere erraza; ez nuen fikzioa egin nahi, “sentsazionalismoaren” arriskua hor zegoelako, formatuan. Lehenengo erabaki zuzena, dokumental generoa aukeratzearena izan zen, erritmoarekin eta interres zinematografikoarekin landu badut

ere. Amerikako epaiketa filmak oso gustuko ditut eta horregatik erakarri ninduen epaiketaren elementua erabiltzeak. Zaila izan zen tonua aurkitzea; ez nuen nahi bigunegia izatea ezta sentsazionalista ere. Baina, aldi berean, kontzientziak mugitzea gura nuen, zein justizia mota izango dugun erabakitzeko erantzukizuna daukagula uste baitut; epaimahai

“Gaiak berez etortzen zaizkit, zinea maite dudalako eta kontzientziak mugitzeko duen gaitasunean sinesten dudalako”

herritarren inguruan hausnartu behar dugu. Niri ez dagokit irtenbideak ematea; zineak galderak zabaltzeko eta gizar-te-eztabaida sortzeko aukera ematen du. —Gustura lotu zara Nagoren egindako beharragaz? —Bai, gustura geratu naiz. Oso hunkigarria izan zen Asun Casasolagaz, Nagoreren ama, egindako aurkezpena. Emakume ederra da, justiziaren alde eta bere alabaren historia ikusgarri egitearen alde borrokatu dena, inoiz berriro gerta ez dadin. Epaimahai herritarraren hutsegitearen aurrean, filmak familiaren mina leuntzen lagundu duela ikustea gustatzen zait. Orain behintzan, istorio hori ez da sekula ahaztuko. Behin betiko epaia kaleratu zenean, istorioa ahaztearen beldurra zegoen. Nik Asuni esaten

“Epaimahai herritarraren hutsegitearen aurrean, filmak familiaren mina leuntzen lagundu duela ikustea gustatu zait”

nion lasai egoteko, filmarekin ezingo dela istorioa sekula ahaztu. —Hego Amerikan hainbat sari eman dizute. Zure zinearen kutsu soziala gehiago heltzen zaielako izango da? —Ez dakit zergatik den baina bitxia da. *Yoyes* filma adibidez, hemen eta belau-naldi baten artean ulertuko zen filma

izango zela uste nuen. Baina nire harri-durarako, aurrena gazteenak joan ziren aretoetara eta ondoren Yoyesen belaunal-dikoak. Filma prestatzen nengoela, ekoiztetxe italiarrak aktore italiar ezagun bat proposatu zidan Yoyesen senarraren papera egiteko. Ni haserre bizian jarri nintzen proposamenaren aurrean, modu arriskutsuan egia esan, ekoiztetxearen

laguntza galdu ahal nuelako. Baina ezin nuen onartu italiar bat jartzea paper horretan, gezur handiegia zen. Aktore ezaguna jarrita ere filmak indarrrik ez badu ez da publikoarengana helduko. Kazetariaren papera egitea proposatu nien, horrek justifikazio posiblea baitzuen: Italian Brigada Gorrien gaia landu ondoren, Espainiara ETAre gaia lantzera joandako kazetaria zela. Bataila hori irabaztea lortu nuen. Ondoren, sorpresa, Hego Amerikan etorri zen. Gerrillen eta emakume gerrillarien gaia (Hego Amerikan ere asko izan dira) eta barne harremanen idiosinkrazia antza ez zen hain ezberdina. Gainera, istorioak bazituen giza elementuak European, Hego Amerikan zein AEBn ulertzen direnak; zeinek ez du ezagutu familia

eztabaida bat Eguberrietako ospakizunetan? Nire lan guztietan unibertsala den zerbait dago, ikusleen erreakzioa munduko leku guztietan berdin-berdina baita. Oso bitxia da eszena beretan barre egiten dutela ikustea. Pasarte dibertigarria daukat honekin lotuta. Honoluluko zine jaialdiari hasiera ematera gonbidatu

ninduten, *Extranjeras* filmarekin. Kritiko ingeles batek zergatik ez nintzen proiektziora joaten galdetu zidan, ea ez neukan ikusleen erantzuna ikusteko gogorik. Nik apostu egin nion banekie-la zein momentutan barre egingo zuten eta zeinetan isiltasun hunkigarria sortuko zen. Asmatu egin nuen. Orain gutxi, Kanariar Uharteetan egon naiz berbal-ditxoa ematen eta asko gustatu zait aukeratu duten izenburua: “Mugak gainditzen dituzten arimadun istorioak”. —Sorlekutik eta hurbileko gaiakaz behar egin duzu beti; hori ez da oso ohikoa, ezta? —Ez da modernoa, ez behintzat gaur egun. Oso tristea da. Zinearentzako une arraroan gaude. Nire buruari zein jende-ari esaten diot istorioek norbera hunkitu behar dutela aurrena; hortik abiatuta eramango dugu istorioa publiko-arengana. Garrantzitsua da pasioa eta kontatzeko beharra sentitzea, batez ere merkatua oso zail dagoela ikusita. —Zelan ikusten duzu Nafarroako zine ekoizpena? —Lehenik eta behin argitzea euskalduna eta unibertsala sentitzen naizela. Ez dut etiketak jartzea gustuko; baina talentua eta gogoia badaudela uste dut. Gainera bideoaren eta teknologia digitalaren agerpenak, asko erraztu du dena. Orain Euskal Herrian zein munduan, irudien bitartez zerbait kontatu nahi duen edonork, egin dezake. Beste kontu bat da, zirkuitu komertzialetan

sartzeko aukera izatea. Baina praktika hor dago; gauzak kontatzeko behar izan hori ase daiteke. —Lamia Produksioak ekoiztetxea sortu zenuen orain urte batzuk. Badago ekoiztetxeen “mafiaz” kexu denik; horretatik aldentzeko sortu zenuen Lamia? —Ekoiztetxea sortu nuen zinea egin

“Gustuko dut zinea ikusteko sortu den modu berria, emanaldi publikoak; eztabaida herritarrei zabaltzen zaie”

ahal izateko. *Yoyes* eta gero, Madrileko ekoiztetxeek zoriondu ninduten lehenengo filma bikaina egin nuelako. Hori ikusita, hurrengoa egiteko zailtasunik izango ez nuela pentsatu nuen. Baina ez zen horrela izan, inondik inora. Horregatik, zinea egiten jarraitzeko, zabaldu nuen ekoiztetxea; bakarrik hasi nintzen nahiz eta orain kide bat dudan. Bi ekoizpen egin ditugu; filmekin lotu-tako material didaktikoa sortzen ere hasi gara. Hezkuntza zein gizarte gune-ei begirako materiala sortzen dugu: kultur etxeak, liburutegiak, emakume zen-troak, unibertsitateak e.a. Mundu osoan banatzen dugu, nahiz eta Euskal Herrian banatzeko zenbait material berezi prestatu ditugun, euskaraz zein gazteleraz. Ezagutzera ematen ditugunean oraindik gehiago erabiliko dira. —Areto handiei alternatiba da hori? —Zinearekin gertatzen ari den fenome-

no arraro honen aurrean, areto handiak hustearen aurrean, oso gustuko dut zinea ikusteko sortu den modu berria. Euskal Herrian asko ematen ari da emanaldi publikoen fenomeno hori, udale-txeetara eta kultur etxeetara zinea eramateko joera hori. Horrela, eztabaida soziala herritarrei zabaltzen zaie. Oso gustuko dut hori. Ekoiztetxetik emanal-

di horien jarraipena egiten ari gara eta aretoak bete eta ikusleek eztabaidetan parte hartzen dutela ikusi dugu. Herrietan kultur ekimenetan parte hartzeko ohitura berreskuratzen ari dela esan gura du horrek. Zinearentzako beste bide bat dela uste dut, teknologia digitalak ematen duen aukera. Zinea edozein lekutan ikus daiteke, garrantzitsuena ikustea da; batez ere, mamia daukan zinea, gozamenaz gain barruan zerbait utziko diguna. Azken hori oso garrantzitsua da, norberak amai dezala filma egiten. —Proiekturen batean murgilduta zaude momentu honetan? —Hurrengo fizkiozko film luzea erakitzen hasteko nago. Ezin dut ezer gehiago esan... badakizu zorte txarra ematen duela proiektuei buruz hitz egiteak irteera marran dauden arte. Barneratzen duen istorioa izango da. ○

aldizkaria

etxean

jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak..... Kalea/zenb.....

Herria..... e-mail..... Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Ameztzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / uk@aldizkaria.biz



Zabala eskolak, 100 urte

Ehun urte beteko ditu aurten Algortako Juan Bautista Zabala eskolak. Mendeurrena ospatzeko, beste hainbat ekimenen artean, erlojuaren orratzen norabidea irauli eta eskolako argazki zaharrak batzen hasi dira eskolako arduradunak. Bertan, mende osoan zehar eskolak izan dituen aldaketak suma daitezke: gurutzeak hormetan, neskak eta mutilak banatuta, janzkera... Ikasle eta batez ere irakasle ohien laguntzari esker, hamaika argazki batu dituzte jada, baina bilduma handitzeko asmoa dute. Horretan lagundu gura baduzu zabalaehunurte@gmail.com helbidera idatz dezakezu!

Argazkiak: **Juan Bautista Zabala eskola**











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

• 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

• Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

• Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

• Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

• Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Basartena labor-labor

Urdulizko **Film Laburren Jaialdirako** lanak aurkez daitezke **30era arte**



UK-k euskarazko film onenaren saria lagunduko du

Basartena Film Laburren Laugarren Jaialdia abiatu da eta pelikulak aurkez daitezke apirilaren 30era arte. Urdulizko Basartena tabernako arduradun eta aktore Patxi Lazkanok sortu zuen jaialdia, ofizio zail hori bultzatzen laguntzeko asmoz. Orain Kultur Etxearen laguntzagaz antolatzen du. Lanak aurkeztu gura dituzten egileek filmaren DVDa bidali behar dute Basartena Tabernara (Elorza kalea, 19) zuzendararen eta aktoreen izenak eta telefono zenbakia eta helbide elektronikoagaz batera.

Euskaraz eta gaztelaz aurkez daitezke lanak, baina euskarazko zinemagintza bultzatzeko ahalegina egiten du Lazkanok. Horregatik sari berezia ematen diote euskarazko film labor onenari; aurtan UK aldizkariak lagunduko du. Beste hainbat sari emango dute.

Koldo Serra, Borja Crespo eta Aitor Elorriaga, eta Amaia Nerekan eta Patxi Urkijo EHuko Ikus-entzunezkoen irakasleek osatuko dute epaimahaia. Film

guztien artean 12 aukeratuko dituzte finalerako. Guztiak priktatuko dituzte Kultur Etxean uztailearen 23an, azken ekitaldian, eta bertan ezagutaraziko dituzte irabazleak.

Fikzio eta animazio film onenek 600 eura jasoko dute, Euskadiko Zinema Eskoletako film onenak eta euskarazko film onenak, barriz, 300 euro.

Euskarazko zinemagintza bultzatzeko ahalegin berezia egiten du Patxi Lazkanok antolatzaileak

Giroa berotzeko, uztailearen 18tik 22ra Kultur Etxeak Maider Bilbao artistaren sorkuntza lan bat hartuko du, performance, eskultura, argazkia, audioa eta bideoa barneratuko ditu.

Argazkian ageri dira Maider Bilbao artista, Asier Abio film egilea, Patxi Lazkanok antolatzailea eta Javier Bilbao Urdulizko alkateordea. ○

info+: www.basartena.com

Ereagatik zuzenean

Getxoko hondartzan joko dute maiatzean Ken 7, We are Standard eta Zenttric taldeek



Zenttric talde getxotarrak joko du maiatzaren 7an

Maiatzerako sorpresatxoak prestatu du Kultura sailak, rock-pop kontzertu bi izango dira hilaren 6an eta 7an, Getxoko Ereaga hondartzako aparkalekuan.

Barikuan Gernikako Ken 7 taldeak joko du, 22:00etatik aurrera. Zapatuan, barriz, kontzertu bikoitza izango da. Getxoko talde bi arituko dira taula gainean: Zenttric eta We are Standard. Kontzertu hau aurreko eguneko baino apur bat lehenago hasiko da, 21:00ak aldera. Sarrera doakoa izango da egun bietan.

Beraz, *Ortzen mugak begietan* Ken 7ren azken diskoa zuzenean ezagutzeko aukera


egongo da. Euskal Herrian eta AEBtako Los Angeles hirian grabatu zuten eta irailean kaleratu.

Getxoko talde biei dagokienez, Zenttric ezaguna egin zen duela urte batzuk. Rolling Stones taldeagaz ere jo zuten Donostian duela urte batzuk, 2007an. Eurrekaz batera arituko dira E Reagan We are Standard. Arrakasta handia eskuratu dute getxotzarrek azken urtean, bai Euskal Herrian, bai kanpoan. Puntako taldeak bertatik bertara eta doan ikusteko aukera parebakoa. ○

info+: www.getxo.net


diskoak

A history of now
Asian Dub Foundation
Cooking Vinyl



Hip-hop, rock, reggae, drum & bass eta Punjabiko musikaren arteko nahasketa entzun dezakezu Britainia Handiko musika taldearen azken lanean. Doinu eta hitz indartsuak darabiltzate londrestarrek, *A history of now* lanean ere. Dagoeneko hamar disko kaleratu dute eta orain gutxi aurkeztu dute azkena gurean.

Trumbo
Trumbo
Matasellos Records



Lehen lana du Trumbo taldeak, baina ibilbide luzeko musikariek osatzen dute taldea: Neubat, Vicepresidentes, Kashbad edota Naut taldeetan parte hartu dute Kandak (ahotsa eta gitara), Gorkak (baxua) eta Enekok (bateria jotzailea). Hardcore, heavy eta rock doinuak antzemango dituzu disko honetan.

Agur Shiva
Bidaia
Bidaia



Mixel Ducau eta Caroline Phillipsek osatzen dute Bidaia taldea. Indiako, Magrebeko edo Balkanetako doinuak hartu dituzte diskoa egiteko. Hamar kanta dira, horietako hiru instrumentalak. Bertso bi egin dute horien artean: *Txoria txori* abestiaren blues bat eta Zuberoko *Goizian argi hastian*. Hainbat musikari izan dute alboan, barbarako, Petti bakarlaria.

moby dick >

Waiting for the sun

Waiting for the sun biran erabat murgilduta dabil Eneko Burzako *Moby Dick* abeslari bakarari algortarra. Martxo hasieran ekin zien kontzertuei eta abuztura arte lotu barik ibiliko da Euskal Herrian zehar, baita kanpoan ere. Apirilaren 30ean Algortako UK tabernan ikus ahalko duzu, 19:30ean, eta maiatzaren 7an, Gorlizko Zehatz Kultur Elkartean, Mikel Urakenegaz batera. Hortik aurrera Donostia, Zaragoza, Bergara, Gasteiz, Zarautz, Ondarru edota Sarara hurbilduko da. Ahots oso indartsu eta pertsonala dauka abeslariak, 2010eko Villa de Bilbao Pop-Rock lehiaketako finalista izan zen eta abeslari onenaren saria eman zioten.

www.myspace.com/mobydicklove

hip-hop jaialdia >

Koska irratia

Itzubaltzeta Gaztetxeak bota zien eskaintza laguntzeko asmoz, Koska irratia egoera larria ikusita: Hip-hop jaialdia izango da apirilaren 30ean, 20:00etan. Hiru talde arituko dira, Barakaldoko Revolta Permanent eta 121 CREW Sound System, eta Lleidako Pablo Hasel. Lehenak 15 urteko gazte bi dira, 121 CREWkoen ikasleak. Bestalde, Pablo Haselek arrakasta itzela lortu du interneten eta lehenengoz abestuko du Euskal Herrian. Gainera, Koskako bertsolariak ere arituko dira eta baliteke bat-bateko esperientzia barria sortzea 121 CREWkoakaz batera. Guztiak arituko dira musutruk eta sartzea 5 euro ordaindu beharko da irratia laguntzeko.

www.koskairratia.com

*etorri
eta
ikusi!!*

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kaleko 8a)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

**Getxoko Andra Mari
Gasolindegia**

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Berangoko Angxane auzoa

Auzoaren historia kontatu du Jose Manuel Valdesek **El bar Asgane** liburuan

Euskal Herriko beste herri eta auzo askotan idatz zitekeen *El bar Asgane*. Gure historia hurbilaren pasarte garrantzitsua jasotzen du: trenak lanera ekarritako etorkinen historia. Dagoeneko 40 urte joan dira Berangoko Angxane auzoa jaio zenetik eta historia txikia batu du Jose Manuel Valdes Angxaneko auzotarrak aipatu liburuan.

Santa Anako basilikatik gertu dago Angxane auzoa. Valdesen gurasoen tabernak gidatzen du liburua, bertan dago lotura; auzoaren antzera, *Asgane* du izena. Auzotarren istorioak gurutzatzen dira tabernan eta horrela eraiki du Valdesek liburua.

Lan sakona egin du, 250 bibliografia eta 500 argazki batu ditu. Lehen angxane-

250 bibliografia eta 500 argazki bildu du liburua osatu eta ilustratzeko

tarrak Espainiar Estatutik iritsi ziren gehien-gehienak, herrialde desberdinetatik. Badajozeko herri oso bat ere etorri zen Angxanera, Cabeza de buey herria.

Denetarik zegoen berangoztar barrien artean, baina guztiak etorri ziren gauza bera egitera: lan egitera eta bizimodua ateratzera. Elkarri lagundu zioten,




Berangoko Angxane auzoa

elkarregaz hazi ziren eta familia handi bat bihurtu ziren. Tabernatik igaro direnen bizitza kontatu du Valdesek, 212 lagunena. Lan egiteaz gainera, bizi ere egin dute, eta toki guztietan moduan, kirola eta jaia bezalako kontuak present dira liburu honetan, kontakizunek eta argazkiek ondo baino hobeto islatzen dute Angxaneko bizimodua.


Dagoeneko hirugarren belaunaldia sortu da auzoan, bertan jaio eta haziak dira, baina auzoak mantendu du hasierako anaitasun izaera. Istorio horiek galtzen utzi gura izan ez ditu idazleak eta omenaldi polita eskaini die. ○

liburuak



Surf
Aitor Zuberogoitia
Alberdania

Bizi-erritmoaren azelerazioaren gainean hausnartu du Zuberogoitia oraingoan. Teknologia barriak azelerazio horren motoretzat jarri ditu. Esperientzia pertsonalen bitartez deskribatu du azelerazioak eguneroko bizitzan duen eragina, barne sosesguaren gorazarre eginez.



Lurra zoruan bailitzan
Iñaki Petxarroman
Txalaparta

Amalurrari egin dizkiogun zauriak zerrendatu eta atzera egiteko gonbitea egingo du idazleak. Egutero 1,23 hektarea lur itotzen dira porlan azpian Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. 1990etik 2008ra berotegi efektua sortzen duten gasen isuriak %47 handitu dira gurean.

[kirola]

Aste Santuan, **elkartuak**

Gimnasia Erritmiko kontzentrazioa egingo dute Ander Deunan **apirilaren 26tik 30era**



8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek parte hartuko dute kontzentrazioan

Aste Santuan Sopelako Ander Deuna ikastola ez da ume barik lotuko. Izan ere, apirilaren 26tik 30era bitartean Bizkaiko Gimnasia Federazioak gimnasia erritmiko kontzentrazioa egingo du bertan, eta 100 neska inguru batzea aurreikusi dute. Lau begiraleren ardurapean, partehartzaileen erdia Ander Deunan lotuko da lotan. Benjaminak, kimuak, haurrak eta kadetak dira bertan parte hartuko duten kategoriak; hots, 8 eta 16 urte bitarteko neskak. Eskola mailako A zein B kategorietan aritzen diren Bizkai osoko gaztetxoak helduko dira Sopelara.

Entrenamendu saioei dagokienez, goizez eta arrastiz egingo dituzte, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. 9 entrenatzaile izango dituzte gidari, eta Urko kiroldegian zein ikastolan bertan egingo dira. Gimnasia erritmikoaren hainbat ezaugarri ezberdin landuko dituzte: malgutasuna, prestakuntza fisikoa, jolasak, dantza irizpideak, bideoak, aparatu eta gorputz teknikak e.a.

Getxon ere, beste hainbat kirolen arte-

an, Gimnasia Erritmikoaren Klubak jardunaldiak antolatu ditu apirilaren 18tik 20ra. Ekitaldiak Fadurako kiroldegian izango dira, goizeko 09:30etik 13:30era. Aldez aurretik izena eman beharko da club_ritmica_getxo@hotmail.com helbidetan edo 665 733 557 telefono zenbakian. Klubeko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dute, eta Getxo Kirolak-eko bazkideek, barriz, 40 euro.

Getxon 300 lagunentzako bederatzi kirol-kanpus eskainiko dituzte

Gimnasia erritmikoaz gain, Aste Santuan 300 lagunentzako 9 kirol-kanpus antolatu ditu Getxoko Udalak, 6 eta 18 urte bitarteko gaztetxoentzat. Udal iturriek aipatu dutenez, Rafa Alkorta eta Patxi Ferreira Athleticeko jokalaria ohiak arduratuko dira kanpusaren zuzendaritza teknikoaz. Honako kirolak eskainiko dira: eskubaloia, errugbia, saskibaloia, igeiriketa, tenisa, surfa eta futbola. Aste Santuan ere, kirola egiteko prest! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol
moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Xabier Uribe-Etxebarria > Ingeniaria eta Anboto enpresaren sortzailea

“Gure sistemaz pertsonakaz hitz eginez bezala egiten dira gestioak interneten”

Asistentzia birtualerako produktuak egiten dituzte Anboto enpresako lagunek. Teknologia sektorean munduko enpresa barri onenari saria eman zioten iaz Silicon Valley-n (AEB), on-line salmentan duen nagusitasunagatik. Martxoan Aixe Getxo saria ere eskuratu zuen.

—Aixe saria eman dizuete orain, baina iaz aukeratu zuten Anboto munduko enpresa barri onena?

—Chris Shipleyk eman zigun, Silicon Valleyn (AEB) eragin handieneko emakumeak. 1.000 enpresatik gora aztertu ondoren sailkapena atera zuten eta Anboto zegoen lehena. Orduan *Start up of the year* saria irabazi genuen. Enpresaren garapena saritu dute.

—Asistentzia birtualerako sistemak egiten dituzue, zer da hori?

—Gure sistemak elkarrizketa *askea* onartzen du ordenagailuan. Lengoiaren prozesamenduan edo sistema semantikoan oinarrituta daude. Lau arlotan lan egiten du, eta lengoaia naturalaren bitartez egiten dira gestioak, pertsona bategaz hitz egingo bagenu bezala da. Osasun arloan, medikuagaz hitzordua internetez hartzeko erabiltzen da. Bankuan gestioak egiteko, berbarako, transferentzia bat, bankuko langileak erantzungo baligu bezala. Hirugarren sistema hegazkinerako txartelak hartu edo zalantzak galdezko da, eta laugarrena, dendetarako. Galdera idazten da hitz eginez egiten den moduan, eta ordenagailua datuak eskatuz doa, idatziz ere, elkarrizketa batean bezala. Azkarra da eta erabilterraza. Lau produktu horiek dauzkagu eta sektore horietako enpresei saltzen dizkiegu.



info+: www.anbotogroup.com

—Sekretua *hizkuntza motorea* omen da, zer egiten du?

—Pertsonak esaten duena aztertu behar du ordenagailuak, eta beraz, bost analisi egiten ditugu: morfologikoa, sintaktikoa, semantikoa, pragmatikoa eta funtzionala. Hizkuntza ez da hitzak soilik, esamoldeak ere bai, beraz, pertsonak zer

tietatik asko ikasi dut. Duela ia urte eta erdi sortu genuen enpresa hiruzpalau pertsonaren artean, baina nik denbora neraman prototipoa egiten. Orain 20 bat langile gara. Oihartzuna eta bezeroak lortu ditugu, baina gehiago behar ditugu; lan handia daukagu aurretik, enpresa oso gaztea gara.

“Ahots bidezko asesoreetan lanean gabiltza, etorkizuna hortik dator, ahotsa eta eskuen bitartez maneiatzen diren sistemetatik”

esan gura duen jakin behar du gailuak. Ondoren, elkarrizketa sisteman sartzen da. Zer erantzun eman edo zer galdera egin behar duen aztertzen du.

—Zelan sortu zenuen Anboto?

—Zortzi urte neraman itzulpen automatiko proiektu batean, eta aitak egin zituen lengoaiari buruzko azterketa guz-

—Lanean zabilzate ahots bidezko asesoreetan, posible izango da ordenagailuek pertsonen ahotsa ulertzea?

—Bai noski, dagoeneko lanean gabiltza horretan. Duda barik, etorkizuna hortik dator, dispositibo mugikorretatik, ahotsa eta eskuen bitartez maneiatzen diren sistemetatik. ○

Fredi Paia

Gerra garaiko Uribe Kostako bertsolariak, 1903-1980

Entzun dozu inoz Manuel Ardeo “Pilatos” Berangoko bertsolari eta iragarlearen barririk? Bertsotan esan eban bera hilko zan egunean elexako kanpaiek ez ebela joko. Eta Bariku Guren egunez hil zan, kanpairik jotzen ez dan urteko egun bakarrean. Asensio Bidaurrezagaren barririk? Getxoko Errotatxu etxekoa zan, Espainiako txapelduna pistako txirrindularitzan eta bertsotan flamenko eta zarzuela doinuakaz egiteko ohiturea eukan. Florentzio Zarraga “Plantatxu” ezaguna egiten jatsu? Leioan jaioa bere Berangon emon eban bere denporarik gehiena. Agirre Lehendakariaren bizkarzain izandakoa gerran, gerraosteko lehenengo Bizkaiko bertsolari txapelketako finalista izan zan. Jose Dobaran “Unbe”ren entzuterik izan dozu inoz? Gure eskualdeko auzo eta herrietako jaietako animatzaile, bertsolari eta kontalari bikaina izan zan. Badakizu Luis Llona leioztarra nor izan zan? Bertsolari eta herri-kirolari fina izateaz ganera, Euzkadi egunkariko iritzigilea izan zan gerra aurretik. Eta Sopelako Eusebito, Gorlizeko Guillermo Etxebarria, Armintzako Jose Portu, Erandioko Patxo Abarrategi, Lemoizeko Urizarreko Inazio Eskoriaza, Eulogio Bidea, Kastrexana, Urdulizeko Abarrategi “Mantsu” arrigunaga baten esku biak galdu eta bizitza bertso-paperak salduz aurrera atara ebana, herri bereko Errotatxuko andra bertsolaria edo Eusebio Zubiaga. Gure eskualdeko bertso-paper, bertso-saio edo desafioen barririk edo argazkirik badekozu?

Holan bada, ipini kontaktuan mesedez UK aldizkariagaz eta neu zuokaz pareko naz kontaktuan.

Gure eskualdean aspaldikoa da bertsozaletasunaren indarra, gerraostean euskal



Txirrita, Olegario eta Gaztelu bertsolariak emanaldi batean. Indalecio Ojangurenen argazkia.

kulturak atzerakada handia izan baeban bere. 1903. urtekoa da topau dodan Uribe Kostako bertsolaritzaren ganeko aipurik zaharrena. Urte horretan bertso-sariketa

«Gure eskualdean aspaldikoa da bertsozaletasunaren indarra»

izan zan Getxon, Zelaia abizeneko Lumotik etorritako bertsolari getxozartu batek antolatua. Bertan izan ziran sasoiko bertsolaririk onenetarikoak: Txirrita handia, orduan Gernika esaten eutsien arren laster Urretxindorra izango zana, Pello Errota, Frantsesa eta Aizarna. 1930ean beste bat eratu zan Getxon bertan, orduan txapeldun Balendin Enbeitak urten eban eta bigarren arestian aipaturiko Aizarnak.


Gure eskualdeko herri bakotxeko jairik

garrantzitsuenetan sano aspaldikoa da bertsolarien parte-hartzea. Leioan izugarrizko zaletasuna egoan gerra-aurretik, eta ezagunak ziran Ondizeko ermita inguruan jokatzen ziran desafioak. Baita Urduliz, Berango, Erandio eta Laukizen arteko mugan, Pozozabaleko Antonio Arraren tabernan egiten ziran bertso-saio eta ume bertsolarien arteko desafioak. Sopela eta Barrikako San Andresetan, Armintza eta Andrakako jaietan, Berangoko Santa Anatana, Erandioko Martiartun, San Kristobal eta Santimamin... bertso-zaletasun handiko eskualdea izan da gurea aita-ama mek esan deuskuenaren arabera. Leioan jaio eta Berangora ezkonduko 96 urteko lagunak esan euskun legez: *Gerrate etorri eurreti etxe bakotxen, hebetxu nahi eskastxuau, bertsolari bet egoan.*

Bada garaia gure nortasunaren iragan galdu hori berreskuratu dagigun. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzeko has zaitez.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezzi

Hanburesak Ogitaratekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



UK Taberna

Mariandresena 1, Algorta



txakoli motaTx. txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

WWW.UNAITABERNA.COM

94 466 16 61

URGULL KALEA 2. (ALGORTA)



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[gaurko aukera]

Ormazabal Lutxanan

Antxume errea eta itsaski-jan ederrak



Erandio eta Bilbo arteko errepidean dago jatetxea, ibaiaren alboan

Lutxana auzo txikia da, baina badago ondo jateko lekuri: Jan-Toki Ormazabal taberna. Ibaiaren alboan dago, metro gel-tokitik pauso gutxira. Horixe du abantailarik handiena, Carlos Ormazabal nagusiaren hitzetan: “Jendea lasai asko etor daiteke bazkaltzera, ondoren ez du kotxe-rik hartu behar-eta”.

Izan ere, ezaguna da Ormazabalgo euskal sukaldaritza tradizionala, bere itsaski-janak eta antxume errea bereziki. Egunero eskaintzen dute hainbat menu. Batetik, eguneko menua, 9,5 euroan; bestetik, menu berezia, 30 eurokoa. Asteburuetan, barriz, taldeak hartu ohi dituzte, 46 eurotik gorako lau menu eskaintzen dituzte, eta karta. Itsaski-jana egin gura baduzu haxe duzu aukera.

Carlos Ormazabal nagusia bera duzu sukaldari.

Ordutegia ere markatzen du janak. Astelehenetik egunera goizeko 08:00etan zabaltzen dute eta menuak amaitzean ixten dute. Barikuetan eta zapatuetan egun osoz lan egiten dute jarraian, eta domeketan itxi. Eskualdetik hurbildu ohi dira bezeroak, baina Ezkerralde eta Bilbotik ere hurbiltzen dira asko. Izan ere, “familia giroko taberna da, baina badauka sona inguruan”, Ormazabalek dioenez.

Ez duzu topatuko txikiteo zonaldean, bertara joan egin behar da, baina ez zaizu damutuko. Usaimenak eta dastamenak eskertuko dizute. o

Ramon de la Sota y Llano 8, ERANDIO
Tf. 94 476 23 89 / 607 218 961



Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



prentsa • aldizkariak
 GETXOKO KIROL PORTUA
 Arriluze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

Maria Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
 Tf. 94 491 08 21
 ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
 Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litsxereriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
 Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
 GETXO ALGORTA



irratia 108 FM

[horoskopoa]



URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
 Gau eta egun entrenatzen zabilza azkenaldian, ez dago zu lotuko zaituenik. Luzaketak egiten has zaitez, Korrika berehala da hemen. Aurten baietz 15 kilometro egin!



OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
 Azken txanpa duzu, azken ahalegina eta oporrak! Asteak azkar batean igaroko dira eta laster iritsiko da Benidormera joateko eguna. Ondo pasa gazte artean!



ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
 Donostiara joango zara Korrikaren amaiera jaialdira eta itzulerako autobusa galduko duzu. Lasai egon zaitez, ziur ezagunen batek etxean hartu zaituela...



AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
 Aste Santurako oporrak prestatzen zabilza eta nora joan ez dakizu, hondartza ala mendia? Onena etxean goxo-goxo geratzea, kanpoan hotz handia egingo ei du-eta.



HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
 Udabarria iritsi da, loreak urten dira eta egunak luzatu, giro ederra dago kanpoan eta zu... Etxean sartuta?! Astindu ipurdi hori eta jarri martxan. Egizu lorehun lepokoa!



EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
 Ezin politago, ezin lirainago, lagunakaz eta etxekoakaz ezin gusturago... eta petralduta zabilza? Batzuk sekula ez dira konforme egongo...



GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
 Korrikan lekukoa eroateko aukeratuko zaituzte, baina aurten nahiko goiz igaroko da zure herritik eta parrandaren ostean, loak hartuko zaitu. Esnatu bada, euskara ezin da lokartu!



LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
 Japoniako lurrikaragaz eta zentral nuklearren aferagaz erabat kezkatuta zabilza, euri azidoaren beldur. Bustiz gero trankil egon, super-botereak eskuratu ahalko baitituzu.



IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
 Urteak aurrera doaz eta lagunak nor bere bizimoduan sartu dira, zuretzako betarik ez ei dute. Hor konpon Marianton! Nahikoa jatorra zara eta baliabide asko izan duzu beti lagun barriak egiteko.



META

(Irailak 17 urriak 16)
 Kontzertu bat ikustera joango zara asteburuan eta bat-batean, zure aitite-amama ikusiko dituzu lehen ilaran, gerria batera eta bestera. Hau lotsa! Ez duzu eta beraien trebetasuna jaso.



HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
 Telebista saio bati esker ospetsu egingo zara. Baina laster txutxu-mutxuak zabaltzen dituzten kazetariak izango dituzu atzean. Ederra egin duzu! Hobe aurretik pentsatu bazenu...



NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
 Norbaitek bonboi kutxa oparituko dizu, baina ez duzu jakingo nork. Ezusteko itzela hartuko duzu deskubritzean. Izan ere, bizitza bonboi kutxa bat bezalakoa da, sekula ez dakizu zer egokituko zaizun...



EUSKAL HERRIA


Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu KIOSKOAN:
 Hilabetero 2,5€ ordainduta
 BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:
 Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta.
 Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONOZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info





Sudoku

Gogoan har ezazu: 1etik 9ra arteko zenbaki guztiek ageri behar dute errenkada, zutabe eta 3x3 lauki guztietan.

		9				6		
	3	5			4		9	
4				9	1		7	5
	9	1	6	8	7			
		2	9		5	7		
			4	1	2	8	3	
6	5		7	2				4
	2		3			9	6	
		8				5		

	6	7			8	4	2	
1	9	5						3
		2	1	3			5	
5				2		3		
	1		9		7		8	
		8		6				4
	4			5	9	6		
8						7	4	2
	3	6	2			5	1	



JESUS QUIESADAK UTZITAKO ARGAZKIA

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Aste Santuan egiten den zein antzezlan ez da egingo aurten Berangon?

> Aurrekoaren erantzuna: Arkaitz Estiballes
> Irabazlea: **Imanol Beristain***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zozoak beleari...

- **nontzebarri**
- **ipurbeltz**
- **Kaximiro**

> Aurrekoaren erantzuna: Korrikan
> Irabazlea: **Eneko Minguez***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa
Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



SARIA

La Gusana
liburudenda
Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12



Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu

Bittor Egurrola

ALGORTAKO SAN INAZIO ESKOLA, 1932

Alango, Konporte eta Neguri Langileko ume gehienak eskola honetara joaten ziren. 1977an itxi zituen atea eskola publiko honek eta etxebizitzak egin ziren bertan. Eskola honen atzean gaurko San Inazio ikastetxea eraiki zen. Argazkikoak bete-betean harrapatu zituen Francoren altxamendu militarrek (1936-1939). Begoña Mentxakak (eta argazkiko beste batzuek ere seguruenera) herritik alde egin behar izan zuen (UK 191n "Berbetan" sailean elkarrizketatua). Luzianito bere nebak zorte txarragoa izan zuen, Lezaman hil zen gerran 1937ko ekainaren 12an. Ez zen gorpua agertu, ezta geroago gorpuzkinik ere.

- 1. lerroa:** Collazos, Txomin Mentxaka, Luzianito Mentxaka, ?, ?, Lauzirika, ?, Fullaondo, Larrinaga, ?, Bermeotarra.
- 2. lerroa:** Leoncio Collazos (?), Moragues, ?, Josefina, ?, ?, ?, ?.
- 3. lerroa:** Hirsuta (?), Domitila Sender, ?, Tomas Etxeandia, Collazos, Begoña Mentxaka, ?, Maribel Larrauri, ?, Mari Angeles Bilbao.
- 4. lerroa:** Ezin izan dugu izen gehiagorik jakin. Zerbait badakizu eskertuko genizuke informazioa.

“Ez nintzateke polizia izango,
ez naiz horretarako gai”

A black and white photograph of a woman with dark hair and bangs, wearing a black strapless dress and a black bow headband. She is looking directly at the camera with a serious expression. In the background, there is a large, dark, furry creature, possibly a giant rabbit or bear, standing in a dark, moody landscape. Several mushrooms are visible on the ground in the foreground. The overall atmosphere is dark and mysterious.

Galdera honi. ○

OLGETAN SOLAS

Guraso eta
6-12 urte bitarteko
seme-alabentzat *

1gande goizetan
12:00 - 13:30
Irailaren 23a plazan
(ALTZAGA)

**KIROL-
JOLASAK**

3. Artzainak

Ekainak 12

2. Arrantzaleak

Maiatzak 29

1. Meatzariak
Maiatzak 15

* Familia bakoitzak talde bat osatuko du: gurasoetako bat, edo biak, eta seme-alabetakoa bat, edo bi (gehienez 4 kide)

IZEN EMATEA: - udaleko euskara zerbitzuan (apirilaren 28ra arte)
- edo igandeetan, bertan, jolasetan hasi baino lehen

Irailaren 23a plaza - euskara@erandioko-udala.net - ☎ 944890128

beharsarea.net

getxon lana euskaraz

